


ARRASATE ^{PRESS}

1993ko otsailak 12

180. zenb.



Drogei agur

Aixpekie (Garagartza)

1866ko erroldan, eta D. Justo Jauregi bertako abare izen zanak jaso eben moduen, baserri hau Arispe izenez ageri da.

Oin hogeit bat urte basarrixen jabiek, Durangoko Justo Garaik, lurrek Ulgor eiteko saltzie erabagi eben eta gaur bertan bizi dan famelixiek erosi eutsen etxie. Ez euken orduko etxiek gaurkuen antz haundirik. Gaurko etxieri itsatsitte beste horrenbesteko bat euken aurrekaldera, eta gaur zuzen-zuzen plazan sartzen dan bidiei egundoko errebueltie ein biher izeten jakon. Honek etxi honek, behin irepillue euken eta bertan auzoko umiek jolasien ibillten zien. San Migelak aillegautekuen barrez, Udeltatik eta, etortzen zienak berandutu eta bertan geraketan zien lo eitten. Hau aurreko etxiau, 1970ien bota zan, fatxadien



konponketie 11.350 pezeta kostaute.

Gerra aurtxurarte Joxe Etxagibel "Amerikano" eta famelixiei bizi zan Aixpekien. Honeik Ameriketara fan zienien Karraskagainetik bere arrebie, Maria, eta bere gizona Joxe Orue famelixiaz jetsi zien bertara bizitten. Honeik alabie Mikaela da bertan geratu zana,

Agustin Orobengoa Beitia, Garagartzako "Plaxena"z ezkonduete 8 seme-alaba euki zittuen, gaur 6 bizi diela.

Gaur Mikaela; Julito bere semiei; honen andrie Juanita Lasa, izetez Matxinbentakue; eta hiru lobak: Andoni, Igor, eta Iker bizi die. Mikaela ondotoxo akordetan da zelan bere aitte Joxe Orue tanborrarixe



zan eta jaixetan eta, zelan ibiltten zan tanborra joten. San Miguel hirugarrenien barrez, garartzarrak Santa Agedara faten zien fiestie erueten; Joxe tanborra joten, Txokolo soinu-jotzaille eta Arbulu kornetiaz, burdi baten gainien atzetik auzoko jentie oiela.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak; CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Gatzagan,
erdi erdian...
ZUHAITZ
JATETXEA



ARAMAIO
okindegia


Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Laguntzen al gaituzte?

Gaurkoan, poliziari buruz erreflexio batzuk egiten saiatuko gara. Zuen arteko erreakzioak denetarikoak izan daitezke, ziur nago. Jende dexentek hauek kritikatzan dituen aurren, ez dugu larregi entzuten/irakurtzen komunikazio iturrietan horretaz, are gutxiago, ideia horiek azalpenez arrazoituta, izan behar duen bezala, horretarako eragozpenak jartzen baitira ia etengabe.

Poliziaren eginkizuna, teorikoki behintzat, edozein herritan eta guztien onerako lan egitea da; eta teorian, jendeak ere horrela hartu behar lituzke. Gure eskubideak zapalduta gera ez daitezten lan egiten duten pertsona batzuk bezala. Haiengana (poliziengana) joateko ez litzateke egon behar arazo, ez estutasunik, haiengan laguntza eske gustoz, lagunduko zaituzten ziurtasun guztiarekin baizik.

Baina gaur egun askok behintzat ez dugu polizia, gure arazoak ulertu etalagundu nahi digun instituzio bezala ikusten. Badakit polizia gorputz guztietan (guztietaz ari naiz) denetarik egongo dela, eta batzuk ez dituztela gogoko izango gazteengana adibidez, daukaten joera. Baina gauza batetaz ziur gaude. Polizia ez dago pertsona bakoitzaren eskubideak babesteko, Administrazio, Gobernu eta interes ekonomikoak eskubide in-

dibidualen gainetik mantentzea da haien eginkizuna, itxura denez.

Polizia nazionala eta Guardia "Zibil" a, herritarrengan urrun daudela espaldiko kontua da, baina Ertzaintzari dagokiona, oraindik piska bat "tabu" a dela dirudi. Euskal polizia bezala irten zelako eta, jendeak ez zuen hasiera batean gaizki hartu. Baina askok, gauza bat genuen buruan; Madrileko gobernuak, eta botere faktikoez nola utziko zuketena, polizia nazional eta guardia zibila-ren ordez "hemengo" polizia bat jartzea. Eta galdera honen erantzuna, badakigu, jadanik, ezta?

Bai, polizia hau sortu ahal izateko sasi-baldintza batzuk onartu zituzten agintariek eta hor dago gakoa. Hasieran itxuraz, fin hasi ziren arren, laster eza-gutu genituen gorputz honen aktuzio eta joerak. Eurak, ordea, zera diote: desprestijio kanpaina hutsak direla eta eurak ez direla bes-

te polizia bezala. Batzuk, jatekorik ez zeukatelako eta, hor badaude, eta benetan intentzio onak badituzte, bada ordua, kritika hauek hartzeko, bertako askok orain arte erakutsitakoak, ez duelako batere "susmo" onik ematen, eta gorputz hau jende xehearengandik urruntzea besterik ez dutelako lortu.

IKER BARANDIARAN



ARTAKILU

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larranaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñhntza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Anitton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko ilustrazioa: Kopi

GORKA

ILEAPAINDEGIA

Arrasaten irekiko dugu ileapaindegi berria!

Ferreries, 35
Tfnoa: 76 08 14
ARRASATE



ITURRIOTZ taberna

Girorik jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

I R T A B E R N A

Ferreries kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Amets profetikoa

Nire ametsa, pakean bizi izatea da. Nire ustez, amets hau ez da nerea, denona baizik. Baina zoritxarrez ez da horrela gertatzen. Nik beti, pakea munduan egon dadila eskatzen dut. Nik behin amets zoragarri bat izan nuen. Amets horretan mundu guztia pakean bizi zen. Denok gauza berdinak zituzten, etxeak, hezkuntza, lana... eta horrelako gauzak. Inork ez zuen inoren inbidiarik eta denek elkar maite zuten.

Ez zegoen hilketarik, ez tristezarik, ez goserik, ez miseriarik... lagunak ginen.

Baina, iretzartu nintzeanean, irratia jarri nuen, nire ametsa egitazkoa ikusteko. Baina, konturatu nintzen amets simple bat zela, munduak lehen bezala jarraitzen zutela.

Bortizkeriaz beterik, hilketaz beterik, gezurrez beterik...

Gure munduan ez dago pakerik!

Zergatik ez dago pakerik? Nola lortuko genuke?

Anima zaitezte eta pakea ezarri mundu honetan!

Pakea gure eskuetan dago!

OIHANE EZKIBEL
LA MERCED-EKO
8. MAILAKOA

Patio txikiegia

Kaixo lagunok:

Joan den ostiralean hor eta ATBn egon ginen, eta asko atsegin zitzaigun bisitaldia. Guk ARRASATE PRESSEN gure kexa bat agertzea nahi genuke. Gure patioa oso txikia da. Hortaz aste batean hirugarren kurtsokoen jolasten dute futbolearen eta 4. eta 5. mailakoek beste aste batean. Bitartean batzuk eskaileretan eta beste aterpean jolasten dute. Guk patio handiagoa nahi genuke, eta hobeto zaindurik txisa usairik gabe. Besterik gabe, eskerrik asko, agur eta hurrengo arte.

SAN ANDRES HERRI ESKOLAKO 4. MAILAKO IKASLEAK

Bidean ilundu

Jakina Kiroldegian edo kanpu borobil batean baino askoz ere atseginagoa dela bide ertzean korrika egitea, baina azken bolada honetan askori ilundu egin zaiobidean eta beharbada ez da ohartu horrek duen arriskuaz. Nik behintzat susto bat baino gehiago hartu dut Garagartza eta Aramaio bidean, koturatu orduko korrika dabilen edozein bide ertzetik irten eta ia kotxearen aurrean jartzen direnean. Horregatik, gutun hau irakurtzen duten guztiei eskertuko nieke Garagartza bidean dagoen pasealekutik ibiltzea edo ilunetan ikusten diren jan-tziak erabiltzea.

ARAMAIOTAR BAT

FANCY


Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Egongo da apaizik etorkizunean?



Pedro Azurmendi
Fagor Garagartzako
langilea
(40 urte)

Nahiko etorkizun beltza somatzen diet, zaila da. Dena dela, uste dut aurrerantzean ere, apaizen bat izango dela.



Purificación Blanco
Etxekoandrea
(50 urte)

Gustatuko litzaidake orain beste egotea, baina geroz eta gutxiago daude.



Aitor Ilarduia
Politeknikako ikaslea
(19 urte)

Uste dut egon egongo direla, orain baino gutxiago baina egongo dira, sinismena duen jendea oraindik bada eta. Sinistedun multzo horretatik sartuko da norbait.



Ainhoa Escudero
ikaslea
(18 urte)

Ez dute orain arte bezala jarraituko; jende gehiago sartuko da eta pentsatzen dut azkenean emakumeak ere sartuko direla, ideiak aldatuta, hain itxiak izan gabe. Beti egongo da norbait.



Petra Aierdi
Etxekoandrea (67 urte)

Gustatuko litzaidake bokazio asko egotea, baina ez dakit, zail samarra ikusten dut, ez ardo eta ez urik.

Aldatu egin dira, gauza batzutan onerako, baina beste batzutan ez.




Igor Unanue
Politeknikako ikaslea
(19 urte)

Nire ustez gizartearen aldatetara moldatuko dira, lehen modu batekoak ziren eta aldatu egin dira eta hemendik urte batzuetara ere aldatuko dira. Ez dira desagertuko.



Ele Caballero
Etxekoandrea
(58 urte)

Sinismen gehiago egotea gustatuko litzaidake, baina behar bada apaizak gaur egungo bizimodura egokitu egin beharko dira.



Paco Hidalgo
Udaletxeko langilea
(53 urte)

Nire ustez gazteek oraindik badute interesik apaizgorako, nik behintzat etorkizuna ikusten diot, nahiz eta elizak garai berrietara egokitu



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

TXITXINPE

BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak,
urdaitegia, fruitu
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutz gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 12
Egunez: Español. Iturriotz.
Gauetz: Guallar. San Antonio.

Larunbata 13
Egunez: Corcuera. Musakola.
Gauetz: Estella. Matxiategi.

Igandea 14
Egunez: Irizar. Erguin.
Gauetz: Estella. Matxiategi.

Astlehena 15
Egunez: Amezuza. Santamaina.
Gauetz: Mozos. Pedro Deunaren.

Astearte 16
Egunez: Ruiz. Maala.
Gauetz: Ruiz. Maala.

Asteazkena 17
Egunez: Morales. San Andres.
Gauetz: Morales. San Andres.

Osteguna 18
Egunez: Azkoaga. Ferrerías.
Gauetz: Azkoaga. Ferrerías.

12 OSTIRALA

ZINEA

"La bella y la bestia" (7,10)

ARRASATE MUSIKALEN ENTSAIUA

Arrasate Musikal Orkestra Sinfonikoaren entsaiua. Gaueko 9etan. Arrasate Musikalen.

BLUES KONTZERTUA

Nako Goñi, Malcolm Searpa eta "The Jokers" taldearekin blues kontzertua. Gaueko 9.30etan. Sarrera: 300 PTA. Arrasateko Gaztetxean.

REGGAE KONTZERTUA

Potato taldearekin reggae kontzertua. Gaueko 11etan. Elorrioko Kafe Ateneon.

BOSNIARRAK ETA AL-ANDALUS

Eskoriatzan dauden bosniarrek Al Andaluseko egoitza bisitatuko dute igandean. Goizeko 12etan helduko dira Zentrura eta bertan Andaluziako janariak jateko aukera, dantza tipikoez gozatu eta abestiak ezagutuko dituzte.

ARRASATE MUSIKALEN ENTSAIUAK

Arrasate Musikal Orkestra Sinfonikoak, bertako kide guztiei entsaiuak hasi direla ohartarazten die. Entsaiuak ostiral eta larunbatetan izango dira Arrasate Musikaleko egoitzan. Ostiralean gaueko 9etan eta larunbatetan goizeko 11etan.

13 LARUNBATA

ZINEA

"La bella y la bestia" (5,7.30,10)

ARRASATE MUSIKALEN ENTSAIUA

Arrasate Musikal Orkestra Sinfonikoaren entsaiua. Goizeko 11etan. Arrasate Musikalen.

ARRASATEKO ALKATEA HERRI IRRATIAN

Herri irratiko "Krisian, geroari begira" programaren barruan Eraña. Goizeko 11.30etan

APAIZGINTZARAKO BOKAZIOAREN ASTEA

Deba Garaiko Mankomunitateko gazte guztiei zuzenduriko ekintza berezia. Arrasaldeko 8etan. Arrasateko Parrokian.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Sagardotegira irteera. Autobusa eta afaria. Izena emateko: Arrasateko Gaztetxea.

ARRASATEKO ALKATEA HERRI IRRATIAN

Herri Irratiak, "krisian, geroari begira"saioaren barruan, herri desberdinetako alkatea eta beste bi pertsona gonbidatzen ditu larunbatero. Arrasatetik, Xabier Zubizarreta, Roberto Maiztegi, Jose Mari Velez de Mendizabal eta Jose Mari Eraña izango dira goizeko 11.30etatik 12.40ra. Herri bakoitzean krisiak dituen berezitasunak, etorkizunerako bideak eta herri bakoitzaren ahalbideak aztertu nahi dira. Programak irauten duen artean, 81 08 57 zenbakira dei egin daiteke.



14 IGANDEA

SAN BALINTIN EGUNA

ZINEA

"La bella y la bestia" (5,7.30,10)

APAIZGINTZARAKO BOKAZIOAREN ASTEA

Apaitzintzarako bokazioaren astearen amaiera. Bokazioaren gaia aztertzeko Arrasateko Parrokia guztietan meza bereziak.

ARRANO EGUNA OÑATIN

Arrano mendiaren jaiak. Irteera: goizeko 9etan Santa Marina enparantzatik. Eguerdian herri bazkaria. Bertara joateko izena ematea: Oñatiko Arrano tabernan.

BOSNIARRAK ETA AL-ANDALUS

Eskoriatzako bosniarrak Al Andaluseko egoitzara bisita. Eguerdiko 12etan. Emanaldi berezia bosniarrentzat.



KORRIKA JAIA BULTZATZEKO BILERA

Martxoaren 26tik apirilaren 4ra KORRIKA jaiak burutuko da, Arrasatetik ere pasatuko da. Ekitaldiak antolatu, kilometroen salmenta kontrolatu, laguntza behar da. AEKK antolatutako euskararen aldeko jai honetan laguntzeko prest zaudeteniok, astelehenean izango den bilerara joan, 7.30etan Udaletzeko Pleno Aretan.

15 ASTELEHENA**ZINEA**

"La bella y la bestia" (7,9.30)

ESKULANEN ERAKUSKETA

Eskulanen erakusketaren hasiera. Maria Jesus Vazquez eta bere ikasleek eginiko lanen erakusketa. Amaiera: otsailaren 22an. Monterronen.

ENPRESAREN KONTROL EKONOMIKOAREN IKASTAROA

Enpresaren kontrol ekonomikoaren ikastaroaren hasiera. 20 orduko iraupena. Emalea: Jesus Sanchez. Matrikula: 6.000 PTA bazkideentzat eta 9.000 ez direnentzat. Arrasateko Eskola Tailerrear. Ibai Artek antolatuta.

BILERA: KORRIKA JAIA

Korrika jaiari laguntzeko bilera. Interesatu guztiak gonbidatuta zaudete. Arratsaldeko 7.30etan. Udaletxeko Pleno Aretoan.

ENPRESEN KONTROL EKONOMIKOAREN IKASTAROA

Ibai Arte, Arrasateko Erdi aldeko merkatarien elkarteak enpresen kontrol ekonomikoaren ikastaroa antolatuta du. Datorren astelehenean hasiko dira klaseak eta 24an bukatu. Guztira 20 ordu izango dira. Emalea, Jesus Sanchez Rebollar, Zientzi Ekonomiketan lizentziatua izango da. Interesatuentzat honako hauek dira ordaindu beharreko kuotak: bazkideek 6.000 PTA ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 9.000 PTA. Izena emateko 79 87 95 telefonora dei egin dezakezue.

16 ASTEARTEA**ZINEA**

"La bella y la bestia" (7,9.30)

HITZALDIA

"Espainolak eta euskaldunak" hitzaldia. Emalea: Joxe Azurmendi. Monterronen. Arratsaldeko 7etan. AEDK antolatuta.

ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEARI BURUZKO BILERAK

Eskola publikoaren legeari buruzko bilera. Arratsaldeko 6.30etan. Musakolako San Antolin Ikastolan. San Viator Txikin, arratsaldeko 6.30etan.

**"LA BELLA Y LA BESTIA" FILMA ALAI ZINEMAN**

Hain ezaguna den istorioa pantaila handira eraman digu Walt Disneyk. XVIII. mendeko kontu honek Frantziako herri txikian garatzen den abentura kontatzen digu. Barnekaldeko edertasuna baloratzen da. Ipuina luzemetraia bihurtzeko, hiru urte eta erdian talde handi batek eginiko lana beharrezkoa izan da: 600 animatzaile, miloi bat baino marrazki gehiago egin dituzten marrazkilariak eta 226.000 zedilen egileak.

17 ASTEAZKENA**TAILA IKASTAROA**

Taila ikastaroaren hasiera. 30 orduko ikastaroa, astean hiru ordutan. Hasierako eta sakontzeko ikastaroak. Ikasle kopuru mugatua. Amaiera: martxoaren 22an. Arrasateko Uriburu kaleko tailerrear.

ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEARI BURUZKO BILERA

Eskola publikoaren legeari buruzko bilera. Arratsaldeko 6.30etan. Gazteluondon. San Viatorren, arratsaldeko 6.30etan.

TAILA IKASTAROA

Arrasateko Udalak eta Arrasateko tailaginen elkarteak, taila ikastaroa antolatuta dute. Datorren otsailaren 17an hasi eta martxoaren 22ra arte. 30 orduko iraupena izango du ikastaro honek eta ikasle kopurua mugatua izango da. Horregatik, lehenbaitlehen izenak ematea gomendatzen da, horretarako telefono hauetara deituz: 79 40 79 edo 79 21 05.

ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEARI BURUZKO BILERAK

Ikastolak publiko edo pribatua bihurtuko dira erabakitzeko, bilera informatiboak egingo ditu datorren astean San Frantzisko Xabier eta San Viatorren. Ikastolako bazkide guztiei gonbidapena luzatzen zaie bilera hauetara joateko. Asteartean Musakolako San Antolin Ikastolan, asteazkenean Gazteluondoko Batzar Aretoan eta ostegunean Jokin Zaitegi Ikastolan izango dira. Guztiak arratsaldeko 6.30etan izango dira. Bestalde, astelehen eta asteartean San Viator Txikin arratsaldeko 6.30etan, eta asteazken eta ostegunean San Viatorren izango dira gai hori jorratzeko bilerak.

18 OSTEGUNA**ZINEA**

"Dracula" (7,9.30)

ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEARI BURUZKO BILERA

Eskola publikoaren legeari buruzko bilera. Arratsaldeko 6.30etan. Uribarriko Jokin Zaitegi ikastolan.

DANTZA IKASTAROA

Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzuak, euskal dantza ikastaroa antolatu du. 15 urtetik gorakoei zuzendua da. Ikastaroa martxoaren 5ean hasiko da eta ekainaren 18an bukatu. Klaseak ostiraletan izango dira, 7etatik 8.30etara. Plaza mugatuak direnez, interesatuok 77 00 65 telefonora deitu edo Gazte Zerbitzura zuzendu zaitezke.



“Arrasateko gaitzinezak aztertze-rakoan XVI. mendetik hasita aztertu dira liburu eta erreferentziak. Mendez mende, 1960an bukatu da, urte horietan etorkinen uhin handia eman zelako eta horiek euren herritik ekarritako gaitzizen asko hasten da nahasten. (...) Arrasaten familia gehienek dute gaitzizena, horrek duen bizitasunarekin. Lan hau egitean, interesatuei galdetu egin zaie argitaratzea inporta dien edo ez, batzuk mingarriak ere badira eta”.

Josemari Velez de Mendizabalek



“Radiazioei, postuerei eta begien nekeari bota izan zaie informatikari eta ordenagailuen erabiltzaileek izaten dituzten errua. (...)”

Milaka pertsonaren artean egindako ikerketa batek aditzera eman duenez, ordenagailu baten aurrean lan egin ohi duten pertsonengan somatzen diren trastornuak — azaleko gaitzak, pikoreak, irritagarritasuna e.a. — ez dira radiazioaren ondorio, stress-ak eta nekadura kronikoak eragindakoak baizik”.

Eukeni Olabarrietak



“Euskadiko Kutzaren irudi aldaketako kanpaina, ‘zerbait gertatzen ari da Lankide Aurrez-kian, CLParen egoera historikoa kontutan izanik, benetako perla fina da. Lan Kide Aurrezkiak egindako bidea hobeezina izan bada, hasieratik gauza guztiak nahi bezala atera badira, munduko ehun enpresa errentagarrienen artean bagaude... mesedez, izan gaitzezen serio-ak, ez dezagun El Corte Inglesaren esaldietara jo, batez ere egoki ez badatoz, eta espero dezagun Euskadiko Kutzan ez dadila ezer gertatzen ari.

Oraingoz, argi dagoen gauza bakarra, oso aldaketa garestia izango dela. 500, 600 milioi? Auskalo!”

Euskadiko Kutzako 478. bazkideak



Zer zentzurekin antolatu da bokazio-astea

Oñati eta Gatzaga artean ditugun parroki elkar-teek egiten dute “Arrasateko artziprestaldea”. Parrokia horietako gehienetan 1993ko otsailaren 4a eta 13a bitartean Bokazio-Astea egin da, Apaiz-Bokazioaren inguruan zenbait ekintza eginez: hitzaldiak eta elkarrizketak pastoralgileekin, fede-hezitzaileekin, gurasoe-kin, gazteekin; otoitzaldiak; zenbait ikastetxetan bokazio-aurkezpenak, eta abar. Ekital-di hau otsailaren 20an, lar-runbat goizez, burutuko da, apaiz-bokazioaz gogoeta egiteko prest egongo diren gazteekin Azatzan batzarra eginez.



Jesus Mari Arrieta

Donostiako Seminarioko Erretorea

Bokazio-Astearen helburuak honako hauek dira: alde bate-tik, kristau-elkartean apaiz-eginkizunak duen garrantziaz ja-betzea; bestetik, apaizetarako bokaziodunak agertarazteaz ar-duratu beharra ikustea; eta, azkenik, bokazio-susmoa edota kezka duten gazteei bokazioa argitzeko bidea eskaintzea.

Gaurko kristau gazteen artean aterako dira 2.000garren urtetik aurrera Gipuzkoan behar izango diren apaizak. Apaiz izateak merezi duela, bizitza osoa Jesusen eta Ebanjelioaren zerbitzurako ematea gauza pozgarria dela adierazi nahi diegu gure parrokietako gazteei.



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Gesalibarren jaiak asteburuan

Eguraldi onaren laguntzaz, giro jatorrean igaro dira Gesalibar auzoko Santa Ageda jaiak. Jaien lehen egunean, ostiralean, jende ugari bildu zen auzo-afarian, Gorrotxategi eta Mendizabal bertsoekin eta Zabale anaien trikitixaz gozatzeko. Larunbatean, berriz, auzoko abesbatza arratsalde osoan zehar atez ate ibili zen, Santa Agedaren omenezko kantuak eskainiz. Jaiak igandean bukatu ziren, meza ostean salda eta pintxoak hartzeko aukeraz eta Pariserako bidaiaren zozketaren bidez. Zenbaki saritua 9930a, oraindik ez da irabazlerik agertu.

ONCEK 250 milioi Arrasaten

Diru-zaparrada galanta ekarri zuen ONCEko zozketako 32655 zenbakiak, Gema eta Maripilik, Portaloiko saltzaileek banatutakoa. Guztira 250 milioi eman zituzten: zati handi bat Musakolara, beste bat Santa Agedako koruentzat, hirugarren bat erdialdeko dendari askoren artean eta gainontzekoa ohizko beste erosle batzuentzat.

Gaztetxean ekintza ugari

Benetan asteburu gogorra izan dute Gaztetxean, ekintzaz betetakoa. Ostiral gauean, *Heriotza* eta



Sutea San Andresko etxebizitza batetan

Leintzibar kaleko etxebizitza bateko sukaldean sua sortu eta kalte desenteak eragin zituen, bai etxe barruan eta baita etxaurrean ere. Sutea arratsaldeko 3.30ak aldera hasi zen, eta suhiltzaileak agertu arte, ordulaurdenez, indartsua izan zen. Edozein modutan, Zubillagatik etorritako suhiltzaileek hiru kamioi ekarri zituzten eta berehala kontrolatu zuten. Suteak kalte nabarmenak eragin zituen eta pertsona bat, kearen eraginez, zentrora eraman behar izan zuten baina orain ondo dago.

Zakarrak taldeen kontzertua izan zen, oso giro ona eta 250 pertsona inguru. Larunbat eguerdian, berriz, lagunarteko bazkaria, baina aurrez, goizean zehar sagardoa edan eta txalaparta entzuteko doaneko aukera; bazkarian, berriz, 30en bat lagun eta bazkaltzeko arrai-zopa, oilaskoa eta tarta ederra. Larunbat gauean, *Pop Crash Colapso* eta *Wipe Out Skaters* taldeen kontzertua, gaueko 9etan, baina bezperan baino jende gutxiago. *Wipe Out Skaters* madrildarrek, musikatzeaz gain, show polita eskaini zuten.

Kontzertuak eta bazkaria alde batera, aipatu behar da dagoeneko Gaztetxean makrame ikastaroa hasi dela, 15en bat lagunekin.

AEDk iragarki erakusketa

Iazko urtean arrasatearrrek etxeetan jaso zituzten publizitate orriak eta komunikabide desberdinetan herriko kroniketan erabiltzen den euskara kopuruaren neurketa erakutsiz, AEDkoek erakusketa jarri zuten Sebero Altuben. Erakusketa igande eguerdian jarri zen

eta makina bat jende ibili zen inguruan. Erakusketa denboran, AEDkoek hizkuntzaren erabileraren neurketako datu adierazgarrienak jartzen zituen diptikoak banatu zituzten.

Bi hildako bi istriputan


Jon Antxia 18 urtetako atxabaltarra eta Carlos Rollán Fernandez 27 urteko arrasatearra, errepidean izandako istripuen ondorioz hil ziren joan den astean. Lehen istripua Eskoriatzan gertatu zen, Jon Antxia auto batek bota zuen, ostiraleko goizeko 4ak aldera. Bigarren istripua, larunbat goizean izan zen, 4.30ak aldera; Carlos Rollán Aretxabaletako saihesbidetan zihoan egunean bertan estrainatutako zilindrada handiko motor bategaz, eta, auto batekin topo egin eta bertan hil zen. Beraz, istripuei dagokionez zoritzarreko asteburu joan dena, herri biak gogor astindu zituena.

JAIOTZAK

- Manex Olabarria Bedia. Abenduaren 10ean.
- Maite Elkoro de Tena. Urtsailaren 28an.
- Leire Eraña Lopez de Bergara. Otsailaren 2an.
- Miguel eta Juan Sanchez Lopez. 4ean.

HILDAKOAK

- Maria Tapia Susperregi. Otsailaren 3an. 72 urte.
- Josefa Permuy Blanco. 5ean. 90 urte.
- Mercedes Anton Pacheco. 9an. 66 urte.



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

ERAIKUNTZAK

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



JON ZUAZABEITIA *

Hitzarmenak hiru urte bete ditu

“Nondik datoz marinela? Nora doa untzia? Zergatik? Nortzu dira marinela? Eta zer da untzia?”

Joseba Sarrionandia

Eusko Jaurlaritza nahiz Arrasateko Udalaren hai-zearen laguntzaz, 1990eko martxoaz geroztik, euskaren erabilpenaren itsasontziak -Hitzarmenak- itsasoaren -gizarte- zabaltasunean gure altxorra -euskara- darama. Hainbat marinel (ikastetxe, erakunde publiko, talde politiko, kirol elkarte, kultur talde, enpresa...) eta teknikari batez osatutako (kapitaina ote?) itsasontzi horren bidaiak laster 3 urte beteko ditu.

Kontuak kontu, Hitzarmenaren balorazioa egin beharra dago. Idatzizko harremanei dagokienez, Hitzarmena %90ean betetzen dela esan daiteke. Izandako bilakaera aztertuz gero, go-

rantz joan den prozesua dugu Hitzarmena. Alde batetik, euskara gero eta gehiago erabiltzen baita entitateen arteko idatzizko harremantean; eta bestetik, kopuruari dagokionez, hasieran 38 entitatek zabalduz bideari beste zenbait atxekitzen joan zaizkio, egun 91 partaide daudelarik. Beraz, balorazio positiboa egin behar dugu.

Zenbakiak zenbaki, ekin diezaiozun lortutakoa aztertzeari. Besteak beste, Arrasateko Udalak Lagun-Aro aseguru etxearekin egindako

.....
“Pareko bide bat poliki-poliki jorratzen ari direnak, egunen batean aukera edo ahalmena izan dezaten Hitzarmeneko partaideak izateko”

poliza edo Kutxarekin sinatutako mailegua euskaraz egitea posible izan da. Halaber, Hitzarmeneko inmobiliariari edozeinek eska diezaieke etxebizitzaren kontratuak euskaraz egiteko.

Bestalde, Hitzarmena ez da proiektu mugatu bat. Izan ere, erraminta egoki bilakatu zaigu euskara ahalik eta alor gehienetan indartzeko eta bestalde, gure hizkuntzaren ainubean egondako hainbat arlotara zabaltzeko. Horretaz gain, ezin da alde batera laga euskararekiko lortu den ardura edo inplikazioa. Partaide berrien bila aritzekoan, ate joka ibiltzeaz gain eta batzuk Hitzarmenean sartu ez arren, sekulakoa da lortu dena, beste bide bat zabaldu ahal izan baita. Egon badaude entitate batzuk, Hitzarmenean gaur sartu ez badira ere, pareko bide bat poliki-poliki jorratzen ari direnak, egunen batean aukera edo ahalmena izan dezaten Hitzarmeneko partaide izateko.

Bukatzeke, proiektu honen amaieraren atarte gaudenez, -Hitzarmena has-teko hiru urtetarako sortu zen- hausnarketa sakona egin beharko genuke. Hitzarmen honekin jarraitzeko problemarik ba al dago?, zalantzek lekurik ba al daukate?, modu egokiagorik ba al dago?, Hitzarmenaren lema no-rantz egin beharko luke?, Tripulazioko partaide ba-koitzak ez al du ezer esateko?...

(*) HITZARMENOKO
TEKNIKARIA

USTEAK USTE

PARROKIAREN ERABERRITzea

Duela gutxi San Juan Bataiatzailea Parrokia berriztatzeke obren proiektua behatzeko aukera izan dut, aurrekontu erraldoidun egitasmo galanta dela egiazta-tzekoa ere bai. Karpeta sendoen artean aurkitu-tako planoek aurpegi ederra erakusten diote eraikuntza gotikoari, alboetako kaleak bihotz aldean eraldatuz. Ausartak iruditu zaizkit proiektuaren eragileak, diruaren beldun gehiegi barik eta parrokiaren itxura orijinala berresku-ratzeko ahaleginetan jokatzen ari diren honen-tan. Zein izango ote da baina, erakunde pu-blikoen jokabidea, Udalarena barne, obra hau hartzerakoan? Aurrekontua zergaz zamatzaz gain, irizpide urbanistikoei eutsirik proiektua mugatzea lortuko ote duten sus-moa geratzen zait. Zer ote da orduan dirulagun-tzaz edota udal apor-tzioaz, makinatxo batek apor-tziorik egin behar ote den zalantzan jarriko duen arren. Udala Hirigu-ne Zaharra berregokitze-ko planaren eragile izanik eta bertako eraikuntzarik zaharrena ei dena, ondare historiko artistikoa, bestalde, zaharberritzeko dirurik ez ematea ere nahiko harrigarria litzateke. Erantzuna, noizbait onartuko den 1993rako udal aurrekontuak emango digu.

JON GARAI

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABAETA**



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auza)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



Emakumez osatutako lau talde bildu dira proposamenerako.

Emakumeek zerbitzu eskaera aurkeztu Udalari

Arrasateko Emakumeen Asanblada, Egizan; AEDko Ekin emakume taldea eta Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko emakumeek, Udaletxean emakumeari buruz aurkeztu duten proiektu bateratuaren aurkezpena burutu zen atzo. Gure herrian era horretako proiekturik ezaz kezkatuak, emakumeentzako bereziki antolatutako zerbitzu bat eskatzen da, alde asistentziala eta horrezaz gain promozioko politika akzio positiboa bultzatuko duena. Horrezaz gain, eta bigarren mailan, estudio bat egitea eskatzen dute, azpiegitura minimoak betetzen direnean Arrasaten zein lehentasun dagoen aztertuko duena "lanean jarraitzeko oinarriak jarri behar litzuzke ikerketa horrek, zer arlo diren behar handienekoak, promozioa bultzatzeko asmoz", diote lau taldeetako ordezkariak.

Eskakizun minimoen artean, eta Emakundek egiten duten proposamenetara mugaturik, atentzioko zerbitzu edo bule-

goaz gain, etxetik alde egin beharra duten emakumeentzako harrera etxea beharrezko ikusten da proiektu honetan.

"Emakumeari begira Udalean politika eraginkorra aurrera eraman ahal izateko, horretaz arduratuko den espazio bat behar da. Ongizate sailaren barruan egon beharrean, emakumeen kontzejalia, baina Udaletxeko egitura aldatu arte, horretaz arduratuko den zinegotzi bat eskatzen dugu, gestiorako ahalmena izango duena". Proiektua Udaletxean dago, eta 93ko aurrekontuetan sartzeko asmoa erakutsi dute alderdiek bakoitzarekin egindako bileretan.

Arrasateko emakumez osatutako lau talde hauen esanetan, "tamalgarria da Deba Garaian ere honetako zerbitzurik ez egotea, eta aspalditik eskatzen ari garen gauzak dira hauek. Mondragoetarren %50a emakumeak gara eta eskatzen duguna minimoa da, Emakundek administrazioentzat egiten dituen proposamenak besterik ez dira".

Pleno Berezia hilaren 26an

- Zinegotzi Sozialisten
- Taldeak egindako eskaerari erantzunez, otsailaren 26an
- Pleno berezia burutuko da
- Udaletxean, arratsaldeko
- 7.30etatik aurrera. Plenoan, publizitate ez komertzialari buruzko Eudel-en arautegia onartzeko eskatuz aurkeztuko duten mozioa eztabaibatuko da.

Ikastola, publiko ala pribatua?

Euskal Eskola Publikoaren Legea onartzeaz dagoela eta S. F. X. eta San Viator ikastolek sare publikoan edo pribatuan egotea erabaki beharko dute. Erabakia hartu aurretik, legeari buruzko bilerak egingo dira, azken erabakia asanbladetan hartzeko. S.F.X. Ikastolako bilerak ondorengo egunetan: asteartea, San Antolin; asteazkena, Gazteluondo; eta osteguna Urribarriko ikastolan, hirurak 6.30etan. San Viatorren, bilerak egunero eta asanblada martxoaren 23an.

Gurutze Gorriaren datuak

Urtarrilean zehar egindako 81 irteeretan, Deba Garaiko Gurutze Gorriko lau ambulanziek 54 pertsona trasladatu behar izan zituzten, horietatik 44 zauri handi barik, 5 larri zauritutakoak eta gainontzeko 5ak hilda.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Akitaniako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzakoak eta Hezibidekoak egon ziren aurkezpenean.

Autoikaskuntza bultzatu nahi Hezibidek Mediatekaren bidez

Dokumentazio eta Mass Medien zentrua izango den mediateka zabalduko du Hezibidek. Proiektu honen hasiera Akitania-Euskadi komenioari esker gauzatu da. Ikasteko modu berri bat jarri nahi da martxan mediatekaren bidez eta ikaslea ikaskuntzaren egile izatea da helburua, eskolako bizi-moduaren ardatza aldatu eta mediatekara bideratuz. Batez ere, ikasle-irakasleen topagune izan beharko du eta autoikaskuntzarako toki. Mediatekan, eskolan sortutako materiale bereziak, ikus entzutekoak eta informatikako materialak egongo dira. Ikas-

leari aholkuak emateko eta, era berean, funtzionamendu egokiena erakusteko, irakasle eta dokumentalista bat egongo da mediatekan. Irakasle Eskolan, Eskola Politeknikoan, Almenen, S.F. X. -en eta Ahizke-n jarriko da martxan lehendabizi proiektua.

Bestalde, ikastetxe desberdinen arteko sare telematikoa ere sortu nahi da, ikasleak bere ikastetxean lortu ezin duen informazioa besteetan aurki dezan.

Mediateka honetaz gain, badaude beste proiektu batzuk Akitaniarekin: hezkuntza, enpresa, ekonomiko eta kultura mailakoak.

Eskaintza Fagor Electronicari

Takoloko bidegurutzea hobetu nahi dela eta, Udalak Fagor Electronicari, 491 metro karratu luraren ordezkari 10 milioi PTA inguru eskaini dizkio. Duela hilabete batzuk, Udalak Diputazioari bidegurutze hori konpontzea proposatu zion; Diputazioak baiezko erantzuna eman zuen, baina horretarako, Udalak aurrez luraren jabegoa eskuratu beharko zuela. Takoloko bidegurutzea hobetzeko egin den proiektuan 491 metro karratu horien beharra azpimarratzen da. Orain, Fagor Electronicaren erantzuna itxaron behar, eta kooperatibaren erantzuna baiezkoa balitz Diputazioa segituan hasiko litzateke lanean.

Dirulaguntzak taldeentzat

Aurtengo urtean Udala-ren aldetik dirulaguntzaren bat eskuratu nahi duten kultur edo kirol taldeek, euren eskariak martxoaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte Udaletxean, bakoitzak dagokion tokian.

Makilaia ikastaroa

Makilatzen ikasi nahi duzu?

Anima zaitez!

Automakilaia ikastaroa

Otsailak 18, osteguna.

Ordutegia: goizeko 10etatik - Zetara

arratsaldeko 4etatik - 8etara

Prezioa 5.000 PTA. Plaza mugatuak.

Informazio gehiago: 79 09 09



AMAGARA ESTETIKA ZENTRUA

Erdiko kale, 54 etxeba ARRASATE

Informazioa nahi baduzu
zure esku duzu gure laguntza.



"Bezeroaren telefonoa"

901- 20 20 20

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

IBERDROLA



Behin behineko plantila erregulazioak eta lau laneguneko asteak, krisiari aurre egiteko neurriak.

Krisiak eragin zuzena Fagor taldeko aurrejubilarazioetan

Fagor taldeko kooperatibetako 104 bazkidek aurrejubilarazioa onartu zuten 1992. urtean. Jubilarazioa aurrez hartu duten kooperatibistek, osotasunean kotizatuko luketenarekin konparatu ezker %90a kobratuko dute. Normalean, jubilarazioari begira azken urteetan kotizatzen da gehien, eta jubilarazioa aurreratzea pentsatu dutenen zati handi bat, azken urteei dagokiena, enpresek ordaintzen dute. Kooperatibetako aurrejubilarazio planak, berez, ez du zerikusirik krisiarekin, lantegietako produkzio kostuak merketu eta enpresak gaztetzeko sortu zen, baina krisiaren eraginez, areagotu egin da planari

heldu dion jende kopurua, azken hilabeteetan batez ere. Fagor Electrodomesticosen 48 aurrejubilarazio, Ederlanen 21 eta Coprecin 17, horietatik izan dira Fagor taldean aurrejubilarazio kopuru handiena tramitatu duten enpresak.

Gehienez hiru edo lau hilabeteetako iraupena duten behin behineko plantila erregulazioak, eta lau laneguneko asteak soldataren %85a kobratuz, krisiak eragin duen eskaintza ezari zuzen zuzenean erantzun nahiean hartutako neurriak izan dira, produktuen kostuak murrizten diren heinean stok-ik sortu ez dadin.

Haratuzteetako egitaraua onartuta

Haratuzteetako egitaraua dagoeneko prest dago. Otsailaren 19an hasi eta 23an bukatuko dira aurten, tartean Play-back jaialdia, plazako dantzak, mozorro lehiaketa, sardinaren hileta eta abar. SUDCEk eta Udalak prestatutako egitarauak, guztira 3.377.000 PTAko aurrekontua dauka.

Udalak ordaindu egin behar Iker Erizi

Epaitegiek erabaki dutenez, Udalak 438.500 PTA ordaindu beharko dizkio Iker Erizi, 1990ean Musakolako jaietan jasan dako kalteak ordaintzeko. Jai haietan, Iker Eriz zezenak harrapatu zuen; eta ondorioz, ospitalean denbora bat egin zuen. Berak ez zuela zezenketan parte hartzen eta zenenak atzetik jo zuela esanez, Iker Erizek segurtasun ezaz salatu zuen Udala eta epaitegietara jo zuen 2.000.000 PTAko indemnizazioa eskatuz. Epaitegiek arrazoia eman diote, baina ez 2 milioitik.

HITZALDIA

"Espainolak eta euskaldunak"

Emalea: Joxe Azurmendi

Monterronen

Otsailaren 16an, asteartea
Arratsaldeko 7etan




Joxe Azurmendi,
filosofoa eta
EHUko irakaslea



Gesalibar aldean Santageda jaiak ospatu dituzte. Hainbat ekitaldi izan dira: herri afaria, Pariserako bidaiaren zozketa, dantzaldia, bertso saioa,

umeen jolasak... Argazkian azken hori jaso nahi izan dugu; izan ere, ume pila bildu baitzen larunbat arratsaldean auzoko plazan.



Badira hilabete batzuk Santa Barbarako parkea inauguratu zenetik, baina beste detaile guztiak piskanaka jarri dituzte. Esatebaterako, jardin polit hau beharbada parkeak duen gauzarik ikusgarriena izan daiteke, bide ertzean, toki erakargarrian baitago.



Altzibar baserriko **Pedro Agirianoren** eta Maria, bere emaztearen lanaren emaitza dira hor ikusten dituzuen arbi eder horiek. Handienak

10 kilo pisatzen ditu eta besteak 6-7 kilokoak dira gutxienez. "neure akorduen ez dot holako arbi ederrik ikusi" esaten digu Pedrok.

Amaia Axpe aramaioarrak, bere anaiak Ala Delta egiten zebilela hartutako zartadari esker, ETBko "Ene ba bideoak" lehiaketan, "Olé tus videos"eko finalera heltzeko aukera izan du. Pasa den astean Amaiak bidalitako bideoa telebistan ikus ahal izan genuen eta sartada baita Amaia bera ere.

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

IZEN PROPIOAK

● **Jon Iñaki Izarzelaia**, 25 urte, arrasatearra izango da Beinke elkarteko liberatu berria egun erdiz.

● **Aloña Altuna**, 30 urte, Arrasaten bizi den bergarra izan da Bergarako ihauterietako kartela aukeratzeko lehiaketaren irabazlea. Diseinu ikasketak burutu ditu eta gaur egun Tamayon ari da lanean. Arrasateko lehiaketetara urtero aurkezten du kartel bat.

● **Juan Mari Otaegi**, gaur egun Fagor Electrodomesticos-eko lehendakaria dena, Fagor taldeko Kontseilu Nagusiko lehendakariorde izendatu dute.

● **Jose Ramon Goikoe-txea**, Fagor Sistemako gerentea, Espainiako CIM Akzioarako aholkulari izendatu dute. Erakunde hori SPRIT programaren barruan sartzen da.



Gemma eta Mari Pilik, Portaloiko ONCEko saltzaile ezagunek, 250 miloi banatu zituzten pasa den ostegunean. Hainbat arrasatearrei

saria banatu eta gero, uso batek boletoretan zikina egin ziola eta, eurek ere sari horren zati bat jaso zuten. Usoari ezker!



Kristina Losada Murua eta Joxe Mari Lopez Jover gizon-emazteek urrezko eztaiak egin

dituzte. Arantzazun meza izan ondoren, Zumelagan izan zuten bazkaria. 6 seme alaba dituzte

baina familiakoez gain, lagunak ere izan ziren ospakizun honetan. Zorionak!

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK


LARRUZKO PRAKAK 15.000 PTatik AURRERA!!!

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

ESKAINTZA BEREZIAK



SUKALDE ETA BAINUGELA,
HORNIDURA.

ETXEBITZE-ERABERRITZEAK.

LAN-ZUZENDARITZA.

NEURRIAN EZARRITAKO
ARMAIRUAK.

HALTZARIAK. DEKORAZIOA.

HIREI

SUKALDE OSOTUAK

COCINA INTEGRAL

ZARUGALDE, 25 20.500 - ARRASATE

Sarrera : Otolara Lizentziatua.

Tfnoa. (943) 77 02 82 - Faxe. (943) 770907

EUSKAL DANTZAK IKASTAROA

“Lore Gazteak” dantza taldearen eskutik

- 15 urtetik gorakoei zuzendua
- Iraupena: martxoak 5 — ekainak 18
- Ostiraletan
- Orduategia: 7etatik 8.30etara
- Plaza mugatuak

Izen emate eta
informazio gehiagorako:

Gazteentzako


Informazio

Bulegoa

Tfnoa: 77 00 65



Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Sailkapena lortzeko azken aukeren bila

Bi partidu besterik ez dira geratzen Zaldibarko Txapelketako lehen fasea buka dadin eta dagoeneko talde batzuk sailkatuta daude. A taldean bost talde sailkatuta eta beste hirurentzat aukerak, handienak Betraye eta Urmay B.K.rentzat, gero Danok Lagun, Aizpun Bila eta Bukanak taldeak toki baten bila. B taldean dena erabakita, zortzi lehenak sailkatu-

ta. C taldean, bost postu hartuta eta hiru erabakitze, aukera gehien Txoko taberna, Arrasate Kristaldegia eta Gure Leku; hanka sartzen badute, Alpagata Turbo eta Adobe hor daude. D taldean 4 sailkatu eta beste 4 libre, Koxkas, Los Dimy, Notxingan Florest eta Monterrey taldearentzat seguruen; hutsaren zain, Zotz eta Foto Ima-gen.

Iluntz
taberna
ARRASATE



**IRATI
TABERNA**

Ferrerias kalea ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

Futbito Txapelketa

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI BILI	15	13	1	1	96	34	27
ZULOAK	15	12	1	2	57	30	25
ARRASATE KIROLAK	15	10	2	3	56	39	22
KAIXO LENIZ	15	10	1	4	65	61	21
LOS HEREDIA	15	9	3	3	66	25	21
BETRAYER	15	8	4	3	51	31	20
URMAY B. K.	15	8	4	3	51	30	20
DANOK LAGUN	15	7	3	5	48	31	17
AIZPUN BILA	15	8	1	6	50	43	17
BUKANAK	15	7	3	5	48	43	17
ITT	15	7	1	7	65	37	15
SIBILIUS ROVER	15	5	4	6	35	37	14
DRINK TEAM	15	3	3	9	24	58	9
DRAFT	15	4	0	11	52	77	8
WHISKERIA LINDE	15	4	0	11	45	68	8
RESAKO 15	15	1	2	12	23	68	4
GARIBAI-5	15	1	1	13	21	64	3
AMOZKIBAR II	15	1	0	14	28	105	2
GUZTIRA	276	118	34	118	881	881	272

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	15	12	2	1	53	20	26
ZIZTI-ZAZTA	15	11	3	1	60	22	25
BIZKORRAK	15	10	2	3	36	23	22
ZULUS	15	10	1	4	64	45	21
MOTZ	15	9	2	4	58	60	20
JODO FLORO	15	8	4	3	42	31	20
PUBLICOOP	15	9	2	4	36	38	20
DIEGO ANTONIO	15	8	3	4	53	33	19
LA BANDA	15	6	2	7	45	36	14
KAKAJAURI	15	5	4	6	39	54	14
GATZBAKUAK	15	4	5	6	32	44	13
TRONKOTEAK	15	5	3	7	47	51	13
ANBOTOSTE K.T.	15	5	1	9	34	45	11
LAUTHERBRUNNEN	15	4	1	9	22	49	9
BAYERN PROMESAS	15	3	2	10	22	60	8
ATERPE KAFETEGIA	15	1	2	11	23	44	5
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	268	114	39	114	703	703	268

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	15	12	2	1	81	22	26
ADELAIDA-HAIZEA	15	11	2	2	89	23	24
NOSKI	15	12	0	3	83	38	24
LASO ARREGI	15	8	4	3	60	36	20
NUEVO TABERNA	15	9	2	4	63	48	20
TXOKO TABERNA	15	9	1	5	41	55	19
ARRASATE KRIST.	15	9	1	5	53	33	19
GURE LEKU	15	8	2	5	66	47	18
ALPARGATA TURBO	15	7	2	6	51	47	16
ADOBE F.C.	15	8	0	7	47	46	16
NAVARROS	15	7	1	7	48	47	15
AUF DEM KOFFER	15	5	2	8	32	44	12
GANBELAS	15	5	2	8	38	51	12
KRISKIBALDA	15	2	5	8	35	56	9
ATXANTA KE TE...	15	3	0	12	30	86	6
SEGUROS ORBITA	15	2	1	12	34	70	5
BALEIKO	15	2	1	12	23	79	5
ALLA KUIDAUS	15	1	2	12	23	87	4
GUZTIRA	270	120	30	120	897	897	270

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. IND. UGARTE	15	12	2	1	89	25	26
LEINTZ GARAGAR.	15	11	3	1	66	24	25
POTROAK LORATEGI	15	10	4	1	62	36	24
PEPELUS	15	9	4	2	56	32	22
KOXKAS	15	8	4	3	53	39	20
LOS DIMY	15	7	5	3	71	37	19
NOTXINGAN FLO.	15	7	4	4	57	49	18
MONTERREY TAB.	15	9	0	6	67	35	18
ZOTZ	15	8	1	6	44	53	17
FOTO IMAGEN	15	7	3	5	62	45	17
ARTZANKOS UDAL.	15	6	3	6	57	51	15
SOKOAKOAK	15	5	1	9	53	66	11
UGLYS	15	5	0	10	35	49	10
SOLANO 7 MARES	15	5	0	10	55	56	10
OLEEE!	15	3	1	11	36	77	7
EZKINAKO HONTZAK	15	3	0	12	31	83	6
BAYERN DE LEINTZ	15	1	1	13	29	87	3
ILUNA TABERNA	15	1	0	14	21	100	2
GUZTIRA	270	117	36	117	944	944	270

Jovi

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Mokeka losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

ITURRIOTZ
taberna



Girorik
jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

LIZARRA
taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



Atzelariek huts egin dute, atezainak atearen babesa utzi eta aurrelariaren parera irten behar izan du, bere helburua, faltarik egin barik baloia daramana oztopatzea. Horrela, behintzat, berak huts eginda ere, atzelariaren bati korrika eta presaka ate ingurura joateko denbora emango dio.

BELARRIRA

◆ Lehen fasea bukatu bezain pronto, bigarren faseko sailkapena lortzen duten talde guztiakin Monterronen bilera egingo da. Oraindik egun jakinik ez duen bilera horretan, bigarren faseko taldeen banaketa eta azken fasearen gorabeheren azalpena egingo da.

◆ Orain arte, taldeetako jokalaria izan dira arbitro, baina 2. fasean gauzak aldatu egingo dira eta arbitroen arteko "ofizialak" jarri. Antolatzaile-arbitro lehen bilera asteazkenean egingo da.

◆ Aste honetako afarien zozketan Notxingan Florest eta Amozkibar II taldeak izan dira sarituak. Ezingo dira kexatu!

◆ A, C eta D taldeetako sailkapen kontuak ikusi ondoren, partidurik interesgarrienak honako hauek dira: Laso Arregi - Gure Leku, Leniz Garagardotegia - Zotz, Alpagata Turbo - Navarros, ITT - Urmay Burger King eta Zuloak - Aizpun Bila.

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 4	Kaixo Leniz 7
Danok Lagun 11	Amozkibar II 2
Aizpun Bila 3	Argi Ibili 6
Betrayer 6	Sibilius Rover 1
Arrasate Kirolak 6	Whiskeria Linde 3
Zuloak 3	ITT 1
Bukanak 8	Draft 4
Resakas 1	Garibai-5 1
Los Heredia 2	Urmay B. K. 2

C TALDEA

Atxanta ke te... 5	Kriskibalda 3
Nuevo taberna 2	Arrasate Krist. 1
Navarros 2	Baleike 0
Ganbelas 5	Noski 6
Adobe F. C. 2	Txoko taberna 1
Alpagata turbo 3	Auf Dem Koffer 0
Laso Arregi 1	Seguros Orbita 1
Gure Leku 1	Adelaida Haizea 8
Trikiti 6	Alla kuidaus 2

B TALDEA

Mikelos 5	Tronkoteak 2
Bizkorak 4	Gatzbakuak 3
Aterpe Kaf. - Lautherbrunnen (Suspend.)		
Jodo Floro 1	Motz 2
Kakajauri 3	La Banda12
Publicoop 3	Anbotoste K. T. 1
Zulus 2	Zizti-zazta 7

D TALDEA

Monterrey tab.0	Pepelus 1
Los Dimy 3	Suministros Ugarte 1
Oleee! 1	Potroak Lorategi10
Ezkiñako Hontzak 0	Artzankos Udai. 2
Leintz Garagar. 8	Iluna taberna 1
Foto Imagen 5	Solano 7 mares 2
Uglys 2	Notxingan Florest 3
Sokoakoak 4	Zotz 3
Bayern de Leinz 2	Koxkas 4

Trikiti S.L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 13

Zaldibar

- 08.45 Laso Arregi / Gure Leku
- 10.00 Solano 7 mares / Koxkas
- 11.00 Leniz Garagardotegia / Zotz
- 12.00 Alpagata turbo / Navarros
- 13.00 Ganbelas / Seguros Orbita
- 14.00 Drink Team / Amozkibar II
- 15.00 Adobe / Adelaida
- 16.00 Noski / Kriskibalda
- 17.00 Foto Imagen / Oleee!!
- 18.00 Auf Dem Koffer / Alla Kuidaus
- 19.00 Ezkiñako Hontzak / Notxingan Florest

Iturripe A

- 13.00 Sibilius / Kaixo Leniz
- 14.00 Mikelos / Gatzbakuak
- 15.00 ITT / Urmay Burger King
- 16.00 Kakajauri / Bayern Promesas
- 17.00 Atxanta ke te... / Arrasate Kristaldegia

Iturripe B

- 11.00 Bizkorrak / Motz
- 12.00 Danok Lagun / Whiskeria Linde
- 13.00 Bukana / Resakas
- 14.00 Jodo Floro / Zizti zazta
- 15.00 Nuevo taberna / Txoko taberna
- 16.00 Lautherbrunnen / Tronkoteak
- 17.00 Publicoop / Zulus

Igandea 14

Zaldibar

- 08.45 Aterpe Kafetegia / Anbotoste K. T.
- 10.00 Zuloak / Aizpun Bila
- 11.00 Los Heredia / Argi Ibili
- 12.00 Artzankos / Pepelus
- 13.00 Uglys / Sokoakoak

Iturripe A

- 09.45 Betraye / Draft
- 11.00 Bayern de Leniz / Potroak Lorategi
- 12.00 Arrasate Kirolak / Draft

Iturripe B

- 09.45 Iluna taberna / Los Dimy
- 11.00 Monterrey taberna / Sum. Ind.Ugarte
- 12.00 Trikiti / Baleike

NON DAGO BALOIA?



Hile honetako zozketarako txarteltxo piloa iritsi zaigu. Hala ere, ez dago etsi beharrik horregatik. Pentsa azken astean bidaltzen direnak, nahiz eta nahasten saiatu, pilotxoaren ginean geratzen direla. Beraz, segi orain arte moduan eta baliteke oraingo honetan **Non dago baloia?** lehiaketaren saria zuretzat izatea.



12. astea

Non dago baloia?



- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa

Trikipublik

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •



Prebentzio lanean, denok protagonista

Beñardo Kortabarria

Arrasate Press: Gazteak prebentzio lanean?

Garikoitz: Noski, arazoa gizartearena da, baina gazteena batez ere.

A. Press: Prebentzio-lana banatuta daukazue, alde batetik gurasoak, beste batetik irakasleak, bestetik gazteak, teknikaria bera... arazoa guztiona izanda, zergatik horrela funtzionatu?

Ibon: Oraindik lehen pausuak eman ditugu, esperientzia hasi zenetik bi urte dira eta oraindik ikasten gaude, eta besteen es-


perientziak ikusiz, baita neurri batean lasaitzen ere. Lan-programan, seme-alabekin zela berba egin, elkartu beharra, aurrera begira zer egin....

Deunoro: Bakoitza bere aldetik gabiltza neurri batean, hori sortutako bide bat izan da, ez helburua. Lehenetasunak ezarri eta lan egiteko aukera da, gazte eta umeengan eragin nahi duen aukera. Umeengana iristeko, eskolak eta familiak garrantzia handia dute, horregatik jendea inplikatzu gurasoen eta eskolen partehartzea bideratzeko bi tres-

na garatu genituen: Gurasoen Heziketarako Mahaia eta Qsasun Heziketarako Mahaia. Gazteengana iristeko pentsatu genuen eurak izan behar zirela protagonista, eta gazteen artean protagonista nagusiak gazte-elkarteak dira.

Horiek bideak dira, baina helburua zabalagoa da. Arrasate komunitate bat da eta ondorioz arazoa guztiok dugu, zer nolako herria eraikitzen ari gara? Ezin da Udala alde batetik joan, gurasoak hemendik, ikastetxeak handik eta gazteek bere aldetik. Sektore bako-

Udaletxeko drogomenpekotasunen aurkako zerbitzuko arduraduna, Deunoro Otero; Gurasoen eta Osasun Heziketarako mahaiko partaideak, Ibon Bolinaga eta Margarita Gorrotxategi; eta Garikoitz Uribetxeberria, Gaztetxeko partaidea, bildu genituen drogen prebentzioaz egiten ari diren lanari buruzko azalpenak jasotzeko.



Ibon eta Deunoro, bata Guraso Heziketarako mahaikidea eta bestea Udaletxeko teknikaria.

tzak badu bere zeregina, baina zentzu komunitarioa eman nahi badiogu, elkarlana garatu behar dugu.

A.Press: Topaketan baloraziorik bai?

Deunoro: Jendeak gehien baloratu zuena herriko adin, eginkizun eta iritzia desberdineko beste pertsona batzuekin elkartu eta koordinatu ahal izatea izan zen. Lehen pausua izan zen, prozesioaren hasiera eta elkarlana gauzatu arte arlo hori landu beharrean gaudede, guztion partaidetzaz. Arrasateko jendearen iritzia, eskaerak eta eguneroko bizimoduko arazoak ezagututa abiatu behar dugu, bakoitzak bere erantzukizuna hartu eta guztion beharrak eta kezkek bideratu. Zentzu komunitarioa eman dezakeen tresna garatzea falta zaigu.

Garikoitz: Topaketena gauza polita izan zen, bistaz ezagutzen genuen jendearekin berba egin ahal izatea. Bakoitzak bere iritzia eman zituen, besteenak entzun eta hortik ondorio baiko-

rrak besterik ezin daitezke atera. Horrelako gehiagoren beharra azpimarratuko nuke.

A. Press: Drogomenpekotasunen prebentzio lanean zabilzate; jendeak badaki zertan?

Margarita: Guk, noski, eskolan esaten diegu zertan ari garen, baina hori baino zabalagoa da. Gaiak hartu eta ikastaroak egiten ditugu, programak prestatu, hemen hitzegiten ditugun gaiak eskolarako prestatzea beharrezkoa den edo ez ikusi, adin bakoitzerako ondo dauden edo ez erabaki... ez da pertsona bat hona etortzea, nolabait ikastola guttia lotuta dago. Sexu heziketako mintegiak egin ditugu, kontsumokoak, denbora libreari buruzkoak...

Garikoitz: Hemen ateratzen den gutzia Gaztetxeko asanbladan komentatzen dut, batzutan eztabaidak sortzen dira eta sortuz gero berba egiten da, eta bestela hor geratzen da. Epe motzera gure hemengo lanak ez du beste ondoriorik, bai-

na luzera begira igartzen da zerbait, antolatzen diren ekintzetan geroz eta jende gehiagok parte hartzen du, gai honen inguruan burutu diren mahainguruetara gazteak agertu dira, topaketetan hartu genuen parte. Akaso ez da mugituko behar adina gazte, baina zerbait nabaritzen da.

Ibon: Duda handiak dauzkat. Gu hemen ibiltzen gara bileretan hitzegin eta hitzegin, oharrak atera etab. baina ez dut uste gero behar den bezala kaleratzen denik. Gainera, bada beste zerbait, ikastaro eta bilera gehienetan beti jende bera ikusten da.

Garikoitz: Topaketetan horri buruz ere hitzegin zen, eta argi geratu zen kalera irteteko tresnen beharra dugula.

A. Press: Zentzu hortan eginda Prebentzio aldizkaria?

Deunoro: Bai. Lehen Topaketetan konturatu ginen jende pila batek hartu zuela parte, baina hala ere, Topaketan bidez ezinezkoa da jende askorengana iristea. Lana kaleratzeko beharra nabarmena zen, sektore berriak sentsibilizatzea, ahalik eta jende gehiengoraino iristea. Modu batean, *Prebentzio* aldizkariak funtzio hori betetzen du.

Orain programa komunitarioa sakontzen eta gure artean eztabaidatu eta sortzen diren erreflexioak kaleratzen saiatu behar dugu, gure aportazioak baliagarriak izan daitezen. Hor daukagu erronka eta hortan saiatu beharko dugu.

Margarita: Topaketetan argi geratu zen aurrera egin behar dugula, drogomenpekotasunen prebentzio lana ez dela tekniko edo erakundeen esku utzi behar bakarrik, guztion arazoa dela eta bakoitzak hor ze-

**Garikoitz
Uribetxebarria**

**“Jakín ezazu
zertan
zabiltzan”**

Deunoro Otero

**“Zure bizitza
bizi, zu zeuk
erabaki”**



Margarita eta Garikoitz, Osasun Heziketarako mahaikideta eta Gaztetxeko partaidea.

regin handia dugula.

Ibon: Jende askok dauka drogomenpekotasun arazoren bat eta uste dut jendea ez dela prebentzio mailan lanean ari proportzio horretan, zabaldu egin behar dugu. Prebentzioa interesgarria iruditzen zait eta uste dut Udala apurka apurka hortaz konturatzen hasi dela eta baliabide batzuk ere jarri dituela, baina arazoa handia denean irtenbideak proportzio berean jarri behar dira. Aurrera egiteko salto bat eman behar dugu eta gogor ekin, diruarekin, jende gehiago lanean jarritz, kalekook gehiago arduratuz.... Arazoa orokorra da, ez da Arrasatekoa bakarrik eta beste herriein harremanetan jarri eta elkarlanean ihardun behar dugu. Problema izan edo ez, guztiok irabaziko dugu horrekin.

Deunoro: Prebentzio lana arazoei erantzuteko egiten da, arazoi sozial batzuen ondorioz sortutako arazoei erantzun eta nolabait arazoi sozial horiek al-

datzeko. Bi lan egiten dira: bata, arazoa duten pertsonen irtenbideak eskaini; bestea, berriz, arazoari aurre egin. Arazo horri aurre egiteko orduan eskolak, gazteek eta gurasoek baidute zer eginik.

Margarita: Ez da loteria edo kanpotik sortutako zerbait, gizarteak berak sortutakoa da eta gizarteak egin behar dio aurre. Arazoa sortzen duten arazoiei aurre egin behar zaie eta alternatibak eskaini.

A. Press: Eta aurrera begira, zer?

Garikoitz: Gutxinaka gutxinaka, sortzen diren ideiak jorratu.

Deunoro: Epe batean mahai bat sortu behar da, jendea elkarlanean jartzeko, sektore desberdinetako pertsonak elkarlanean jarri behar dira. Prozesu berri baten hasiera bultzatu behar dugu, topaketen inguruan abiatuta.

Ibon: Eta prozesu hori zabaldu, bestela betikoak izango gara eta.

Ibon Bolinaga
"Lasaitasunez bizi"

Margarita Gorrotxategi
"Otsoa ez dago kanpoan, barrura begiratu!"

Drogomenpekotasunen aurkako prebentzio Zerbitzua

- Arrasate Pasealekuan dago, goiz eta arratsaldean lan egiten dute, edozein drogomenpekotasun mota duenari lagunduz. Harremanetan jartzeko 79 41 39 telefonora dei egin daiteke.

- Prebentzio lana eta zerbitzu lana bereizten dira.

- Prebentzio lana, Gurasoen Heziketarako Mahaiak, Osasun Heziketarako Mahaiak, eta Gazteen artean banatuta daukate. Mahai bakoitzak bere dinamika dauka, nahiz eta programa komunitarioa jartzea izan helburu.

- Zerbitzuari dagokionez, toxikomanoei eta bere familiei informazioa eskaintzen zaie bertan, baita bidezko ikusten denean dirulaguntzak eman ere.

- Toxikomanoen normalean Gizakia Helburu programara joateko aholkua ematen zaie, Las Nieves-eko dispensarioarekin, Agipad-ekin eta Metadona programarekin lan egiten badu ere, zerbitzu publiko edo erakunde publikoekin kontzertatuta dauden programa bakarrik baitira.

- Zerbitzuan iaz 16 toxikomano izan ziren: 6 informazio eske, 4 dirulaguntza eske eta beste 6ak birgizarteratze prozesuan orientazio bila. Urte berean, Udalak 17 pertsonari eman zion dirulaguntza, errehabilitazio programa batean sartuta egotearren.

Aitor Arsuaga eta Juan Pablo Guridi

Drogaren zulotik

bizitza normalera

Aitor Arsuaga eta Juan Pablo Guridik urte asko pasa zituzten heroinaren menpe, bataz zazpi eta besteak bost. Behea jota zeudela, familiaren eraginez Juan Pablok eta epaitegietatik bidalita Aitorrek, Gizakia Helburu programara jo zuten. Droga utzi eta ahalegin handiak egin behar izan dituzte herriko bizitzan integratu ahal izateko.


"Neure kabuz droga uzteko hamaika saiakera egin nituen - dio Juan Pablo Guridik- denbora bat probatu barik egoten nintzen, baina berriro erortzen nintzen. Ez nuen uste hainbesteko menpekotasunik nuenik, familiak programara sartzera behartu ninduen arte". Gauza bera dio Aitorrek "Seriotasunez ere ez nuen planteatu droga uztea, baina gero eta arazo gehiago sortzen zidan, gero eta zulo handiagoan sartzen ari nintzen... baina epaileek, espetxea edo Gizakia Helburu eskaini zidaten".

UTZI DAITEKE

Droga uzteko programan sartu zirenean, bata Donostian eta bestea Gasteizen, berehala alde egiteko asmoz sartu zirela aitortzen dute, baina droga utzitako jendeaz topo egin zutela. "Orduan sinistu nuen droga utzi eta mundu horretatik irteeta po-

sible zela. Oraindik ere, jende askok ez du sinesten, eta argi utzi nahi dut: droga utzi daiteke". "Utzi daiteke -dio Aitorrek- baina gogorra da, niri asko kosta zitzaidan, espetxeko presioa neukan atzetik.... Baina gogorrena ez zen hori, gogorrena Gizakia Helburuko dinamika zen, gauza bakar bat bizi nuen egun osoan, programa bera, ez zidan beste ezertarako astirik ematen eta". Programaren gogortasunaz hitzegiten dute, "monoa" baino gogorragoa beraiek diotenez, hori laster pasatzen delako. "Edozein modutan, droga uzteko -diote biek- norbera da garrantzitsua, ez programa, benetan utzi nahi izateak balio du. Jende askok Gizakia Helburu programarekin droga uzten du, baina beste askok ez; beste programekin gauza bera gertatzen da. Guretzat Gizakia Helburukoa baliagarri izan da, baliteke beste batzuentzat ez izatea. Era batera edo bestera, programek balio dute, jende asko irtetzen ari da eta".

Juan Pablok hiru urte pasa zituen programan; Aitorrek, gutxiago, bi urte t'erdi inguru. Bientzat oso luzea izan ei zen. "Programa bukatu arte ez gintuzten bakean utzi, bergizarteratze fasean ere, astean behin bertara joan behar. Kontrol handiegia dago. Bestalde-zioen Aitorrek- ueste dut proiektua hain luze iza-



Juan Pablo Guridi

"Droga utzi zuen jendeaz topo egin nuenean sinistu nuen droga utzi eta mundu horretatik irteeta posible zela"

tearen arrazoia tokirik eza dela. Harrera fasean jende mordoia egoten da eta komunitatean tokia egon arte jendea bertan edukitzen dute".

ZULOTIK OIHANERA

Bergizaratzea lortu ondoren, Aitorren begien aurrean ez zen paradisuik agertu, "guztiok bizi garen oihana" baizik, noiz behinka iraganaren aztarnak agertzen zituen oihana. "Jende asko lehen egindakoak ordaintzen ari da. Birgizarteratze prozesua bete ondoren, jende

asko espetxera eramaten ari dira epaiketen bidez. Bi lagun errehabilitazio programa bukatu ondoren epaitu egin zituzten eta gero espetxera eraman. Ordurako hiru urte ziren programa bukatu zutela. Ez da zuzena”.

Epaitegien memoria onak dakartzan une txarraz gain, gizartearen memoriak dakarrenari ere, aurre egin behar izan diote Juan Pablo eta Aitorrek. “Pertsonalki eta zorionez -dio Juan Pablo Guri-

dik- uste dut egoera horiek bukatzen ari direla. Hasieran jendeak konfidantza barik begiratzen zidala iruditzen zitzaidan, zenbat iraungo ote du? galdezka moduan. Uste dut jendeak hori pentsatzen zuela, inoiz ezin izango niola utzi toxikomano izateari”. Juan Pablok bukatu eta Aitor hasten da “Ez nuen Arrasatera etortzerik nahi, Donostian egon nintzen bi urte lanean. Oso gogorra zen hona etortzea, jendeak goitik behera begiratzen zidan, jende guztiak berba egiten zuen... baina, bueno! orain oso fama ona daukat, jendeak asko maite nau, baina hori landu egin behar da. Zaila izan da jendeak nirgan konfidantza izatea, 14-15 urte nituenetik drogaren menpe, lagun barik, 20 urtetarako inolako harremanik ez... gero bizitzari hemen bertan ekin behar izatea zaila da. Egoera horri aurre egin behar zaio, jende askok bazuen niri esateko zerbait eta nik banuen askorik zer esan ere, eta ez nekien nola. Gogorra da, baina aurpegia eman behar da eta aurrez egingdako dena konpondu”.

HEMEN DIRA

Atzera begira, Aitor eta Juan Pablok droga utzi izanaren damurik ez dute. “Horixe merezi zuela txutea uztea! orduan egun osoa sofritzen egoten bait ginen, egun osoan ahalik eta txute gehien eskuratzeaz pentsatzen, kalamidade bat eginda. Orain behintzat, ez dugu pentsatzen ezertarako balio ez dugunik, gaizki pasatu dugu baina hemen gaude”.

Bergizarteratu, herri zaharrean bizitza berriari ekin, lanean hasi, eta beste edozein pertsona bezala egun on eta txarrei dituzte, zorion eta tristura uneak. “Jende gehienaren antzera, agertzen diren lanak heldu eta aurrera, borroka egin behar gauzak aurrera ateratzeko”.

Gizakia Helburu

Gizakia Helburu programa 1986ean jarri zen martxan; Gasteizko Harrera Etxea, berriaz, Deba Garaiko jenderik gehien jasotzen duena, 1987ko iraiean. Urte betera, Albinan komunitate terapeutikoa ireki zen eta 1989lean, erreintserzio zentrua Gasteizen. Zentru guzti horien helburua toxikomanoei bizitzaren zentzua aurkitzen laguntzea, drogomenpekotasun gabeko bizitzaren zentzua.

Gasteizko Zentrua ireki zenetik 1991ko abendura arte, 347 pertsonak jo zuten zentruko atea, horietatik 171k programa utzi egin zuten. 1990 eta 1991 urteen artean, Deba Garaiko 59 pertsonak jaso zuten laguntza Gasteizko Harrera Etxean.

Gizakia Helburu programak hiru fase ditu: 1) Harrera fasea, motibazioa izaten da gehienbat, droga ez dela arazoa ikustarazi nahi duen fasea. Hitzaldiak, talde-giroa, eginbeharrak... egunero gauza dira, ilusioa berpiztera bideratuak. Toxikomanoek, 6-8 hila-


betetz, egunero egiten dute etxetik zentruko bidaia. 2) Komunitate fasea, Albinan egiten da interno-gisa. Emotibitatea, besteekiko errespetuzko gizalegea eta, nortasuna landuz. Ardurak, talde-giroa, lanak, aisialdi eta kultur ekintzen artean igarotzen dira hone-tako gutxigorabeherako bi urteak. 3) Bergizarteratze fasean, helburuak epe motzera jarri eta 6-8 hilabetez amaitutzat jotzen da programa. Programan zehar, familia toxikomanoaren ondoan izaten da, pareko prozesua eginez. Guzti hori gauzatzeko, Gasteizen terapeuta eta zerbitzuetan 26 pertsonak egiten dute lan eta 30 boluntario baino gehiagok.

Gizakia Helburu Programa erakundeek subentzionatzen dute, beraz toxikomanoek ez dute ezer ordaindu behar.

Zuzenean Gasteizko zentruarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, helbidea hau da: San Ignacio de Loiola, 2.a. (945) 14 37 20 telefono zenbakia.



Deba Garaiko jende asko pasa da Gasteizko zentru honetatik.



Aitor Arsuaga
“Gogorra zen hona etortzea, jendeak goitik behera begiratzen zidan... baina, bueno! orain oso fama ona daukat, jendeak asko maite nau”



Lizarra Elkartea Drogen arazoa bizi duten familien topagune

Hamabostean behin, San Andres auzoko Lizarra Elkartean Gizakia Helburu programan dauden gazteen gurasoak biltzen dira. Aipatutako bileren helburuak, berba eginez elkarri laguntza ematea, seme-alabekin bizi izandako esperientziak elkartrukatzea eta, neurri batean, seme-alabak betetzen ari diren programa berarekin batera egitea.

Guraso hauek, batzardume beste, bi urtetik lau urtetara daramatzate drogomenpekotasunekin zerikusia duten gaiak jorratzen, seme-alabak drogen menpe bizi zirela enteratu zirenetik. "Semea drogadiktoa dela jakitea oso gogorra izan zen -diote gehienek- ezinezkoa baitzirudien norberarena izan zitekeenik, mundua gainera erortzea bezala da". "Hala

Lizarra Elkartea

**Bertan biltzen
diren gurasoek
prest daude
laguntza
emateko
drogomenpekotasunaren
arazoa bizi duen
edozeini**

ere, -dio beste batek- lasaitasuna hartu nuen enteratu nintzenean, ordura arte dudatan asko sufritzen nuen. Arazoa zein zen jakin eta behintzat banekien zeri aurre egin. Nola? horixe zen ez nekiena".

Hasierako ezjakintasuna orokor samarra ei da. Lagun baten gomendioa, Udaltxeko teknikariaren aholkuak, nonbaiten irakurritakoa... drogomenpekotasunari aurre egiteko programa baten pistan jartzeko ohizko bideak dira. Lizarra Elkartean biltzen diren gurasoen ustez, drogomenpekotasunaz duela urte batzuk baino informazio gehiago dago, bai prebentzioan eta baita sendabide mailan ere.

Horrelako arazorik inork ez zuela nahi adierazten

dute, baina beti ikasten dela zerbait eta gauza txarretatik onak atera daitezkeela. "Drogomenpekotasunaren tratamenduak familia bilerazten du. Komunikazio bide berriak irekitzen dira eta elkarren arteko ezagutza hobea da, eta baita norbere buruarena ere.

ARAZO ZAHARRARI JARRERA BERRIAK

Aldatu beharra dago, baina ez arazoa duenak bakarrik. Familia osoaren arazoa da eta familia osoa buŕti behar da... maitasuna eta laguntasuna bezalako gauzei garrantzia eman, biziaren aurrean beste jarrera bat erakutsi behar da". Giza-baloreei garrantzi handiagoa emanez, etxeko arazo guztiak ez direla drogaren eraginez ikustera iritsi direla aipatzen zuten Lizarra Elkartekoek, errua guztiena dela eta ondorioz, guztion artean konpondu behar dela. "Objetiboki begiratuta, -iritzi nagusia zen- orain lehen baino hobeto bizi gara. Hori bai, sekula ez zaigu ahazten droga beneratan arazo zen garaia, hori ez dago burutik kentzerik, horregatik errekaidari diogu beldurrik handiena".

Gizon eta emakume hauek, beraien seme-alabekin batera, drogen aurkako borrokan pausu garrantzitsuak eman dituzte dagoeneko. Hala ere, jakin badakite noraezean dabilen jende asko egon daitekeela. "Hona etortzeko ez dago lotsa pasa beharrik. Hileroko bigarren eta laugarren asteazkenean biltzen gara, arratsaldeko 7.30etan eta drogomenpekotasunaren arazoa bizi duten familia guztiei laguntzeko prest gaudela esan behar.

Bidea luzea da, baina denborak ez du garrantziarik, irtenbideak du garrantzia".

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- 72 m²ko lokal komertziala guztiz egokitua salgai Otolara kalean oso prezio interesantean. Tfnoa: 77 05 61.
- Gela bat alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Garajea salgai Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24.
- Arrasaten edo inguruetan eskailarak gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut. Dei egin 77 05 65 tfnora.

Lana

- Frantseseko klaseak behar ditut. Tfnoa: 79 31 25.
- Esperientziadun neska prest dago umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- Etxetik lan eginez dirua irabazi nahi duzu? Bidali sobre bat zure helbidearekin eta zigilu eta guzti helbide honetara: 161 Postakutxa. 20.550 Aretxabaleta.
- Esperientziadun andra gertu dago umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- Latin eta griegoko klaseak emango nituzke. Tfnoa: 79 50 88. Garbiñe.
- Neska bat prest dago umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 39 49.

• Esperientziadun neska prest etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92.

• Teniseko klaseak ematen dira. Adin eta maila guztiak. Sei laguneko taldea gehienez. Esperientzia eta tituloduna. Tfnoa: 79 52 80.

• Esperientziadun mutilak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Atarteak garbitzeko ere prest nago. Tfnoa: 79 50 30. Jose Miguel.

• Andra euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

• Emakume euskalduna arratsaldez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 77 05 90.

• Alemanez mintzatu nahi duzu? Metodo erreza eta atsegina. Ama-hizkuntza ikasi zenuen bezala, gramatika gabe, ordua aukeratuz. Tfnoa: 79 41 23. Altzaga jauna.

Salerosketak

- Dogo argentinar arrazako txakurkumeak salgai prezio interesgarrian. Dei egin 7etatik 10etara 79 88 53 tfnora.
- Ibizan GL 1.500, SS-1965-Y salgai. Tfnoa: 79 66 14.
- Seat 127 salgai. SS-I. 80.000 Km. Oso merke. Tfnoa: 79 56 79.
- Vespa 150 salgai. SS-V. 95.000 PTA. Tfnoa: 71 79. Dei egin 8etatik 10etara. Jabier.

• Zanussi Z6521 estreinatua gabeko garbigailua salgai. 5.000 PTA. Dei egin gaeuz 78 34 16 tfnora.

• Amstrad PC 1512 ordenadorea salgai, CGA monitore monokromoa, 512 Kb memoria Ram, disketara 5 1/4"takoa. Oso merke! Dei egin gaeuko 8etatik aurrera. Tfnoa: 79 71 26.

• Salgai: Garbitasuna egiteko Vaporetto bat, Ormako erloju bat, Wasili jarlekua, zutikako lanpara eta kuadro batzuk. Aprobetxatu aukerak! Tfnoa: 79 64 50. Milagros.

• Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-hai-zagailua.

• Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.

• PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.

• "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 06 90 tfnora. Kepa.

• Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineko (enzimera) su elektrikoa oparion doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.

Denetarik

- Loro baserrian neurri guztietako 10 urteko plataneroak erregalatzen dira. Joan eta atera egin beharko duzu, atxurra ere badaukagu. Dei egin 79 17 88 tfnora.
- Okoretegi ondoko kabinan kartera bat aurkitu dut, bertan dirua eta giltza piloa. Galdu duenak deitu egin dezala 79 63 01 tfnora. Edo laneko telefono honetara: 79 12 62.

Aste Gazte

Udako ekintzak

• Abandonatutako zenbait herri berreskuratu eta berreraikitzeko proiektuetan esku hartzeko deialdia. Irakaskuntza ertainak eta unibertsitate mailako ikasleei zuzendua. 11 egunetako egonaldiak. Inskripzioa doan. Epea: apirilak 26.

Ikastaroak

• Euskal Dantza Ikastaroa: 15 urtetik gorakoei zuzendua, martxotik ekainera,

ostiraletan, 7etatik 8.30etara. Izena emateko epea zabalik.

• Taila ikastaroa. Hastapen maila. Astelehen, asteazken eta ostegunetan, 6etatik 8etera. Hasiera: otsailak 17. Matrikula: 5.000 PTA.

Lanpostuak

• Bergarako Udalak honako lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: obretako lantalderako peoi bat, uretako lantalderako peoi bat, administrari laguntzaile bat eta

Angiozarko liburutegi eta kultura susperketa zerbitzua. Epea: otsailak 18.


Bekak

• Europako zenbait herrialdetan (Irlanda, Alemania, Bulgaria, Belgika, Grezia) postgradu ikasketak nahiz ikerketak burutzeko bekak. Eskatzaileak: dagokion hizkuntza menperatzen duten lizentziatuak eta, zenbait kasutan, karrerako azken ikasurteko ikasleak. Epeak: otsailak 24 edo martxoak 1.

"Ispiluari begiratu, eta amets bakar batez zaharturiko gazte bat baino ez dut ikusten"

"DIRTY DANCING"

FILMETIK



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Enrike Alonsok txirrindularitza utzi

Bizikletan 17 urte egin ondoren eta momentuz talde barik zegoenez, Enrike Alonsok bizikleta alde batera uzteko erabakia hartu du. Beraz, profesionalen tropelean, Arrasatek ez du ordezkari izango.

— Zergatik txirrindua alde batera uzteko erabakia, Enrike?

— Denboraldia bukatu zenean, kontratua luzatuko zidatela esan zidan Lotus etxeak, baina azken orduan, dagoeneko aurtengo denboraldiari begira talde guztiak osatuta zeudenean, ezezkoa eman zidaten. Ordurako beste eskaintza batzuk izan nituen, baina Lotusekin konfidantza izanda, ezezkoa eman nien. Gero, aurten nire lanaren beharrik ez zutela enteratuta, aurrez eskaintzak egin zidaten taldeekin jarri nintzen harremanetan, baina berandu zen. Pentsatu ondoren, bizikleta uztea erabaki nuen.

— Penaz?

— Kosta zitzaidan erabakia hartzea, baina ez dut damurik. Profesionalen artean beste pare bat urte gustora egingo nituen. Bizitzako hamazazpi urte eskaini dizkio txirrindularitzari. Jende askok pentsatzen du txirrindulariok erdi-masokak garela, baina

askotan gozatu egiten da: tropeleko giroa, jendearekiko harremanak... mundu berezia da. Baina, tira! gauzak joan diren moduan joan dira eta ez dago ezer egiterik.

— Beraz, betirako agurra?

— Ez dut bueltan pentsatzen, 27 urte dauzkat eta nire helburua ikasketak amaitzea da. Enpresa Ikasketen boskarren mailan nabil, bukatu eta nonbait lana aurkitu nahi dut, bizimodua ateratzeko prestatu beharra dago eta. Behar bada Giro-rako deituko didate, baina ez da segurua. Deitzen badidate prestatuko naiz, baina ez daukat hortan pentsatzeko asmorik.

— Behin agur esan eta gero, txirrinduak eman dizkizun gauza txar eta onenak?

— Txarrena ziklismo barruko jende bat, lau lagun, hain gaizki portatzea. Lotuseko agintariek nazkatuta bukatu dut. Begira, txirrindularitza profesionala negozioa da, dirua sartu eta dena usteltzen du, kirolari, berez duen zentzua galdaeraziz.


Gauza onenen artean, betirako lagunak aipatuko nituzke, tropel barrukoak eta baita kanpoko asko ere. Horretaz gain, Tourrean parte hartzea, mundiala da hori.

— Txirrindua aparkatuta eta entrenatzeko asmorik ez, baina herriko mutikoei irakasteko?

— Ez didate planteatu eta ni neuk ez dut pentsatu ere egin. Ez dakit, baina eskatzen badidate, zergatik ez?



Enrike Alonsok ez dauka bizikleta gainean jartzeko asmorik



Enrikeren nondik norakoa

- 27 urte.
- Makatzena taldean hasi zen,, 10 urterekin.
- Jubenil maila, Oñatiko Aloña-Mendirekin egin zuen.
- Afizionatuetan Pryca, Agramont eta Gurelesa taldeetan egon zen.
- Afizionatuetan hasi arte, ez zuen bere baliorik erakutsi, jubeniletan nahiko larri ibiltzen zela adierazten du.
- Gurelesatik Zahorrera pasatu zen, profesionaletara. Ondorengo urteak talde berean egin zituen.
- Iaz denboraldia Caja Hipotecariarekin hasi zuen, baina bi lasterketa egin ondoren, taldea desagertu egin zen eta Alonso, talde barik geratu.
- Denboraldi erdian, Lotus-Festinak fitxatu zuen, beraiekin egin zuen denboraldia eta aurtengoa ere agindu zioten.
- Munduko Txapelketako aurreselektzioan egon zen, beste 15 txirrindulariarekin batera.
- 1993ko denboraldia hasi barik, agur esan dio txirrindularitzari.

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novcentoeskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

UXARTE

Kafetegia,
gozotegia
Gauetz irekita!!
JO TA KE!!

Bañez dokorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

PENALTIAK

● **Auskalo noiz hasten den Deba Arroa Pilota Txapelketa. Bazirudien otsailaren lehen astean hasiko zela, baina otsailaren erdia pasa da eta txapelketa usainik ere ez dago. Aurten txapelketaren antolaketa Elgoibarri dagokio, hauxe zioen Arrasateko pilota taldeko lagun batek: "Ez dakit ganoragabekoak diren edo txapelketa detaile osoz prestatzen ari diren, baina kostatzen zaie".**

● **Rugby taldeko neskek asteburu honetan jokatuko dute lehen partidua, Gasteiz taldearen aurka. Estreinaldia denez, partidu berezia izango da, jokua gelditu eta okerrak zuzentzeko aukerez.**



Ustekabeko omenaldia Jose Ramon Arkauz-entzat

Jose Ramon Arkauzek ondo merezitako omenaldia jaso zuen Atxabalpen joan den igandean. Jakina denez, Jose Ramon Arkauz-ek urte mordoska egin ditu Mondraren aldeko lanean, jokalaria lehenengo eta entrenatzaile ondoren. Beharra dagoenean Arkauzek ez du eragozpenik izaten 3. mailako taldea entrenatzeko, baina berak mutikoak entrenatzea nahiago izaten du. Aurten kadeteak entrenatu ditu eta denboraldia amaitzeaz dagoenez, jokalariek eta jokalarien gurasoek omenaldia eskaini zioten, Arkauz ustekabean harrapatuz. Plaka baten oparia, partidu osteko luntxa eta jokalariek garaipena eskaini zioten.

Tropelean ez zegoen Enrike Alonsorentzat lekurik?

Pelotoian bera baino txarrago askok jarraitzen dute, baina dagoen krisiaz ekipo barik geratuta, zaila da berri bat aurkitzea.



ASIER GUENETXEA
Artiach taldeko txirrindularia

EMAITZAK

Eskubaloia

Seniorrak: Bidasotarra 34 - Arrasate Kirolak 24
Juniorrak: Hernani 26 - Arrasate Kirolak 17
Jubenilak: Arrasate Kirolak 15 - Leitzaran 14
Kadeteak: Arrasate Kirolak 16 - Leitzaran 11

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Arrasate Kirolak - Usurbil, Iturripen larunbatean 6.30etan.
Juniorrak: Arrasate Kirolak - Aloña Mendi, Iturripen larunbatean 5etan.

Saskibaloia

Juniorrak: Arrasate - Hator Asesoria, Musakolan igandean 12etan.
Gizonezko jubenilak: Arrasate A - Atletico San Sebastian, Musakolan larunbatean 4etan.

Gizonezko kadeteak: Arrasate A - Aldapeta, Musakolan larunbatean 12etan.
Emakumezko kadeteak: Arrasate A - Etxadi B, San Viatorren igandean 12etan.
Arrasate B- Zahor, San Viatorren larunbatean 4etan.

Rugbya

Seniorrak: Arrasate 12 - Mungia 26
Jubenilak: Arrasate - Bera Bera (Suspenditua)
Kadeteak: Hernani 5 - Arrasate 25

Hurrengo partiduak

Jubenilak: Kakarraldo - Arrasate
Emakumezkoak: Gasteiz - Arrasate, larunbata 2.30etan
Gasteizen.

Futbola

3. maila: Touring 0 - Mondra 1

Preferentea: Zaramaga 0 - San Andres 0
Emakumezkoak: Mondra 5 - Urretxuko Ikastola 2
Ohorezko maila: Mondra 4 - Mundaiz 2
Jubenilen lehen maila: Vitoria 3 - San Andres 1
Jubenilen bigarren maila: Arrasate 4 - Urnieta 2
Kadeteak: Arrasate 4 - Anaitasuna 1
Haurrak: Arrasate 1 - Añorga 3

Hurrengo partiduak

3. maila: Mondra - Santutxu, Atxabalpen igandean 4.30etan.
Preferentea: San Andres - La Salle, Atxabalpen larunbatean 4.15etan.
Jubenilen lehen maila: San Andres - Vulcano, Atxabalpen igandean 11etan.

Pilota


Promozio Txapelketa: Elgetan, igandean goizeko 10.30etan.

IBARRA
Garajea S.A.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

PUB
HAIZEA



SALBERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA



Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE



Apaizgintzako bokazioen aldeko astea dugu aste honetan bailara osoko parroketan, eta aste honetarako aukeratu dugun erretratuak ere badu zerikusirik gai horrekin. Gaur egun ez bezala, garai baten herriko seme mordoxka joaten zen apaiz, eta ohizkoak izaten ziren meza berriak ere. 1953ko argazki honek bost mutil gazteren ordenazio eguna jasotzen du, San Juan Bataiatzailearen parrokiatik San Frantziskora prozesioan zihoazela ateratakoa. Ekainaren 29a

zen, San Pedro eguna.

Apaiz berriak, lehengo lerroan ezkerretik hasita, **Jose Mari Sarrionandia** eta bere alboan **Juan Mari Lekuona** idazle eta euskaltzain ezaguna, **Jose Luis Iñarra** apaizaren iloba genez Mondragoen asko egoten zena.

Bikote horren atzean, ezkerretik hasita, **Tomas Iturbe**, gaur egun Udalako apaiza, bere alboan **Biktoriano Aranburu** orain Aretxabaletako parrokoa dena, eta **Juan**

Bautista San Migel.

Apaizen aurretik datozen mutikoak tripleak ziren, ezkerretik hasita **Jose Antonio Murgia**, **Jose Luis Torres**, **Roberto Egidazu**, **Juakin Etxeberria** eta **Jose Luis Loiti**.

Prozesioari begira herritar ugari, besteak beste, apaizen atzekaldean **Manuel Gallastegi**, **Tomas Iturberen** aitajauna zena, **Juanito Arriaran**, **Alfonso Gorroñoigoitia** eta **Iturbe** frantziskotarra. Apaizok ordenatzera etorri zen gotzaia **Jaime Font de Andreu** izan ei zen.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZER NAHIAGO?

Imanol Gabin

Izadi dendakoa

- **Gaurko ogia ala lehengo taloa?** Lehengo ta-loak, oraindik jaten ditut noizean behin.
- **Gozokirik gustokoena?** Pastelak.
- **Azukrearekin ala barik?** Azukrearekin, baina ez asko.
- **Zer dute berezia produktu hauek?** Naturalak direla eta prozesua ere diferentea dela.
- **Garestiagoak dira?** Bai, osagai bereziak dituzte-lako.
- **Nori zuzenduta daude?** Gehinak denei, baina badaude produktu bereziak ere.
- **Konforme zure pisuarekin?** Ez, kilo batzuk gutiago banitu...
- **Medikuntza alternatiboaz, zer?** Naturalista mailan medizina alternatibo asko daude eta niretzat bestea baino hobeak direnak.
- **Bizio bat?** Denak ditut: tabakoa, alkohola...
- **Kutsaduraren arazoa konpontzeko, zer?** Denon partaidetza behar da hori konpontzeko.
- **Kirola egitea ala dieta?** Kirola, nahiz eta orain ez dudan gehiegi egiten.
- **Ze urtetan ezkondu zinen?** Bada, orain dela lau urte.
- **Kafe bat hartzeko, emaztearekin ala lagunarekin?** Berdin zait, gustora banago.
- **Zahartzaroari beldurrik?** Ez.
- **Ertzantzarengan konfidantzarik?** Bat ere ez.
- **Zer duzu mesanotxean?** Erlojua bakarrik.
- **Infusio bat?** Menta.
- **Ileapaindegira joatea gustatzen?** Ile motza eukitzea gustatzen zait eta sarritan joaten naiz.
- **Goizean jeiki eta egiten duzun lehenengo gauza?** Gosaldu eta lanera joan.
- **Botika asko hartzen duzu?** Ez, ia ia bat ere ez.



POESIA

Instant soil batek aldatu digu
izate osoa,
aldegin duzuneko gaua inoiz
ez bezela argitu da:
ilargi paregabeen distiraz eza-
gutu duzu guregan ezina.
Oharkabeen dastatu dugu zure
beharra,
zertarako den bizitza jakitera
iritsi gabe.

Gaur gure malkoek eguna busti
duten arren,
geroan zure oroimenak estaliko
ditu samin tantã oro,
egunerokotasunak erakutsiko
bait digu ezabaezina dela
zure irria.

Gauero kontatuko dizkizugu
iragandako eleak;
isiltasuneaz mintzatuz,
iluntasunean so eginez.
Bai bait dakigu zauden tokitik
finkatuko diguzula itsasoaren
urdina,
tontorretako haizearen gardena,
bizitzaren zergatia.

Muxu bat, Jon



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

BAZAR TOKI ON

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

Maria Jesus Vazquez

Eskulanak Monterronen ikusgai

Datorren astelehenean eskulanean erakusketa zabalduko du Maria Jesus. Bere ikasleek eginiko lanak, Monterronen egongo dira ikusgai. Jubilatatu zein etxeoandreei erakusten dizkie eskulanak egiteko teknikak.

— Noiztik egiten dituzu eskulanak?

— Orain dela sei-zazpi urte gutxigorabehera, artisautzako eskulanak egiteko teknikak ikasten hasi nintzen. Gehienak nire kabuz ikasi nituen, liburuetan begiratzuz edo gauza berriak asmatuz. Lehendabizikoa interesa jartzea da eta materiale desberdinekin frogak egitea, zeuk gauza berriak egiteko modua asmatzea, azken finean; ondorengoa berez dator, gustatzen bazaizuzu, ikastea horren ondorioa izaten da.

— Jubilatuekin ere egiten duzu lan, ezta?

— Bai, astean behin bi orduko ikastaroa ematen diet jubilatuei. Eurekin ere urtero urtero erakusketa bat antolatzen dut. Egia esan, sinistu ere ezin da egin zelako ondo egiten duten lan. Pazientzia izugarria dute eta nahiz eta ordú asko sartu behar izan,



lan ezin hobea egiten dute, ezin hobea izaten da emaitza. Askotan pentsatu izan dut nik neuk ere ez nukela hain lan bikainik egingo.

— Ze motatako lanak ikusiko ditugu erakusketan?

— Estainua, tailatuak, egurra, ispilua eta beste materiale batzuk erabiliz eginiko lanak. Emakume

.....

“Niri, pintatzea gustatzen zait batez ere; pintatzen hasten naizenean errealitatetik irten egiten dut”

ezkonduak eginiko lanak dira gehien bat, eta bakoitzak berak aukeratu eta gero, hor izango ditugu ikusgai datorren astelehenean hurrengo 22a arte. Erakusketa honen bidez, gure asmoa ezagutzera ematea da batez ere, helburua inoiz ez da izan saltzea. Guk geure produktuei ematen diegun balorea ezin daiteke diruz erosi; horregatik, nik behintzat, ez ditut saltzen.

— Zuri konkretuki zein da gehien gustatzen zaizun eskulana?

— Niri pintatzea gustatzen zait batez ere, pintatzen hasten naizenean errealitatetik irten egiten dut, ez dakit geratzen. Baina horretaz gain, beste teknika eta materiale asko gustatzen zaizkit: estainua, egurra... Nire ustez, bakoitzak gure lan gus-tokoena dugu eta beharba-da lan horretan izaten ditugu emaitzik onenak. Horretaz gain, bakoitzak bere lanak asmatuz eta frogatzen desberdinak eginez ikas dezake gehiago. Askotan esaten den bezala, irakasle bakoitzak bere teknika eta truko desberdinak ditu, eta ez irakasle bakoitzak bakarrik, egile bakoitzak ere bai.

Haratuzteetako argazki lehiaketa

ASA Taldeak haratuzteetarako argazki lehiaketa antolatuko du aurten ere. Datorren ostiralean hasiko dira aurtengo haratuzteak eta arratsaldeko 6etatik 8etara har daitezke karreteak Ikatza, Epelde eta Laso-Arregi dendetan. Gaia librekoa izango da, haratuzteekin erlazionatuta. Bilduma onenak 20.000 PTAko saria irabaziko du, argazki onenak, 15.000; bigarren bildumarik onenak 10.000 eta bigarren argazkirik onenak 5.000 PTA. Datorren otsailaren 24a baino lehen entregatu beharko dira karreteak hartutako dendetan, arratsaldeko 7ak baino lehen.


Amodiozko gutunen lehiaketa

Datorren otsailaren 14a baino lehen bidali beharko dituzue interesatuok, Berrigara aldizkarira lehiaketarako amodiozko gutunak. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dira eta sariak honako hauek izango dira: lehena 75.000 PTA, bigarrena 40.000 PTAkoa eta bergarar onenarentzat 25.000 PTA. Gutuna eta idazlearen datuak helbide honetara bidali beharko dira: Amodiozko Gutunen I. Berrigara lehiaketa. Berrigara aste-karia, Errotalde Jauregia, 20.570. Bergara. Irabazleen izena martxoan emango da jakitera.

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

MITOLOGIA

SAMARTINTXIKI (III)

Nahiko ezaguna da Euskal Herrian Samartinen kanta. Hala nola behin, deabruak bi aukera eman zizkion ikazkin bati egurra batzen laguntzeagatik: arima emanez ordaindu ala Samartinen kanta abestu. Ikazkinak bigarrena aukeratu zuen, ondorengo elkarrizketa sortuz:

Deabruak: Esak bat.

Ikazkinak: Gure Jaune bera dok bat, berak salbauko gaittuzak.

D: Esak bi.

I: Erromako altarak bi, gure Jaune bera dok bat, berak salbauko gaittuzak.

D: Esak hiru.

I: Hiru Trinidadiek hiru, Erromako altarak bi, gure Jaune bera...

Lau Ebanjelistak lau, hiru Trinidadiek hiru, Erromako altarak bi...

Jesukristoren bost ilagak bost, lau Ebanjelistak lau...

Sei argilarijuak sei, Jesukristoren bost ilagak bost...

Zazpirek Sakramentuek, sei argilarijuak sei...

Zortzirek die Zeruek, zazpirek Sakramentuek...

Bederatziren Ordenamenduek, zortzirek die Zeruek...

Hamarrak mandamentuek, bederatzirek Ordenamenduek...

Hamaika mile aingeruek, hamarrak mandamentuek...

Hamabi ordu santuek, hamaika mile aingeruek...

D: Esak hamahiru

I: Ez dittuk hamahiru. Hik be, ez dan orduen ez dok galduko inon arimie.

LIHER LARREA

Heriotza taldea bigarren diskoa prestatzen

Oraindik proiektua besterik ez bada ere, Heriotza taldekoak bigarren diskoaren grabaketan pentsatzen ari dira. Grabaketarako Heriotza bi aukera aztertzen ari da, Berriz-ko Lorentzo Records-en edo Alemanian. "Grabaketa Alemanian egitea erabakitzen badugu, -zioen taldekide batek- han dugun lagun piloari esker izango da, erraztasun handiak emango baitizkigute. Diruari dagokionez, antzera samar ateratzen da Alemanian edo Berriz-en grabatzea, Alemanian merkeagoa izanda ere, bidaian gastatzen dena kontuan hartu behar da eta. Kalitatearena beste kontu bat da, Alemanian kalitate handiko bi estudioetan grabatuko genuke; hemen, berriz, batean".

Atzerrian zein Euskal Herrian grabatu, aurreko maxi-singlearen esperientzia txarraren ondoren, banaketarako Heriotza-koen asmoa Iruñeako Gor etxearekin harremanetan jartzea da. "Maxi-singlearen banaketaz geu arduratu ginen eta nahiko gaizki joan zitzaigun. 2.000 kopia inguru saldu genituen, baina lan handia da, toki askotara banatu, gero jaso ez... ganora gabeko samarrak ere bagara eta".

Maxi-singlea izan zen au-



Bere lehen maxi-singlaren azala.

rrekoa, baina oraingoan LPa grabatzeko asmoz dabilta, bederatzirek edo hamar kantuz osatuko litzatekeena, "Gorribeltza" edo "Amets hutsak" bezalako izenburuko kantuek. Kantu berri horietako batzuk, eta baita zaharrak ere, joan

den astean Gaztetxean eskainitako kontzertuan entzun ahal izan ziren, eta dagoeneko hitzemanda dituzten hiru kontzertuetan entzun ahal izango dira.

Josu Montero (kitarra), Iñigo Bakero (Baxua), Josu Errasti (kitarra), Jose Mari Legorburu (ahotsa) eta Xabier Legorburu (bateria) dira Heriotza taldeko partaideak, arrasatear bi eta hiru eskoriatzar. Aurrera begira, originaltasuna eta lana agintzeaz gain, eskari bat: "Ea Udaletxean aurrekoan bezala enroilatzen diren".

.....

Oraindik ez dute erabaki diskua Alemanian edo Berrizen grabatuko den

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •


"Beharrak begiak gorri"

• JEROGLIFIKOA •

TAST

Noiz hasten da lanean?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Prozesu. 9. Elkarre gastronomikoa. 10. Galdera. 11. Leongo ibilgailuetan. 12. Ez eme. 13. Musika mota. 14. Eisntenioa. 15. Emaztea gatzeko bihurtu zen. 17. Niobioa. 18. Karbono kristaldua. 21. Animateko erabiltzen den hitza. 22. (Ald.) Gardun.

Bertikalak 1. Sortalde. 2. Lemazaina. 3. Sexuen elkarrenganako joera. 4. Ikusi aditzaren infinitiboa. 5. Puxtarriak. 6. Euskal Batasuna. 7. Ulerpide. 8. Nafarroako udala. 16. Eta. 19. Errepikatuz, haur-hizkuntzan lo. 20. Nizako kontso-nanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Txori konplejoa izango duzu aste osoan zehar, hegan egiteko gogoia sentituz.

Taurus Praka berriekin, kontuz! Ipurdi aldean zulo izugarria zabalduko zaie eta.

Gemini Atera duzun matematikako formula aditzera emanaz, aberastu egin zaitezke.

Cancer Ile tente horiekin oilarra dirudizu. Egin bisita barberoari.

Leo Sendagileak ez dizu berri onik emanngo. Osasuna zaindu behar.

Virgo Astebukaeran izugarritzko mozkorra harrapatuko duzu.

Libra Segi euskal bizimoduari eta ez egin kasurik atsoen esanari.

Scorpio Eskizalea bazara, aurten jai duzu, hondartzan eskiatzen ez baduzu.


Sagitarium Haginetako min izugarria izango duzu. Egin bisita dentistari.

Capricorn Ikasketak ez zaizkizu zuk nahi bezain ongi joango. Filosofiaz hartu.

Aquarius Aste honetan ero guztiak zuregana erakarriko dituzu.

Piscis Maitasun aldetik aste eskasa datorkizu. Ea bada, lasai!

93ko ezkongaiak



BIKOTE SARITUARENTZAT ERREGALIAK
93KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK
SENARGAIAREN JANTZIA
ANDREGAIAREN JANTZIA
ERAZTUNAK ETA ZILARREZKO 13 EZKON DIRU
EZTAI EGUNERAKO CAVA
SUKALDERAKO MAHIA ETA 4 AULKI
EROSKETA TXARTELA
ARGAZKI ERREPORTAIA
PALMA DE MALLORCARA BIDAIA
EROSKETA TXARTELA

ETXEAK
AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)
BAYON (Donostia)
KAREAGA (Eibar)
CODORNIU
IKER (Mondragón)
SOFAS LANDETA (Azpeitia)
FOTOKAI (Donostia)
EROSKI BIDAIAK (Donostia)
GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

ZOZKETA: OTSAILAREN 26an

1994ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 26a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 93KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA _____ (izen deiturak)
 _____ (helbidea)
 _____ (herria) _____ (telefonoa)
 ANDREGAIA _____ (izen deiturak)
 _____ (helbidea)
 _____ (herria) _____ (telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera) _____

HERRI Irratia



• INO CALLEJAREN GOMENDIOA •



Orain 14-15 urte hasi zen Ino bizikletan, eta kaminokoa gehienetan baina inoiz mendikoa hartuta, astean hiru edo lau aldiz joaten da Landa edo Gasteizeraino, "baina Gatzaga kamino berritik, e?". Susto batzuk ere izan ditu, bizikletan ibiltzeak gero eta arrisku gehiago du eta. Ino ez da zikloturista taldekoa, bera "independientea" dela dio, eta kirol apur bat egiteagatik, "turismo era merkea delako eta umore txarreko dagoenean desahogatu eta adrenalina botatzeko" bizikletan ibiltzea gomendatzen du.


• PROGRAMAZIOA •



- 14 Igandea**
 - 8.15 Monterrok
 - 8.45 Mondragol
- 15 Astelehena**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Mondragol
 - 2.00 Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30,9 Berriak.
 - 9.30 Mondra Sport.
 - 10 Asteko zinea: Espioiak gu bezala
- 16 Asteartea**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak •
 - 1.35 Mondra Sport
 - 2.00 Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30,9 Berriak.
 - 9.30 ATB Pub
 - 10 Asteko zinea: Espioiak gu bezala
- 17 Asteazkena**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 ATB Pub
 - 2.00 Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30,9 Berriak.
 - 9.30 Alkatearekin Tertulixan.
- 18 Osteguna**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Alkatearekin berbetan.
 - 7.30 Dokumentala.
 - 8.8.30,9 Berriak.
 - 9.30 ATBketan.
 - 10 Asteko zinea: Espioiak gu bezala.
- 19 Ostirala**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 ATBketan
 - 2.00 Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30,9 Berriak.
 - 9.30 Monterrok.
 - 10 Asteko zinea: Espioiak gu bezala.

• KOMIKIA •

TRIPINOI TALDEA



• SOLUZIOAK •

Astehenean.
JEROGIFIKOA
 20. Nz.
 Talentu. 8. Alesbes. 16. Ta. 19. Mo.
 Ara. 4. Ikus. 5. Kanikak. 6. EB. 7.
Bertikal 1. Ekialde. 2. Patroia. 3.
 21. Ea. 22. Okzuz.
 14. Es. 15. Lot. 17. Nb. 18. Diamante.
 kabal. 10. Itzun. 11. Le. 12. Ar. 13. St.
Horizontalak 1. Epaiketa. 9. Kar-
GURUTZEGRAMA

LIPOESKULTURA
 eta
ZELULOLIPOLISIA

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
 ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
 ARRASATE

Tfnoa: 79 98 94

ZATOK ETA ZENTZAZIOAK ERAMAN ZAITZALA.



S A F R A N E

Zatok ezagutzera. Renaulten azkena da. Beste auto batek ere ez ditu zure zentzuak Renault Safraneak adina erakarriko.

Zatok bere ekipamendua ikustera: 2.963 c.c., ABS, Suspentsio gidatua eta zentzazioen mundu berri batetara eramango zaituen barrukal-

dea. Renault Safrane berria auto bat baino gehiago dela deskubrituko duzu. Zuk deskubritzeko zain dagoen zantzazioa da.



RENAULT
BIZITZEKO
PLAZERRA

AUTO BAT BAINO GEHIAGO, ZENTZAZIO BAT.

MECA, S.A.

Arrasateko
banatzaile ofiziala